Pablo Sastre

Joxemi

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1986 Pablo Sastre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1986ko abendua
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

LEHEN PARTEA

–I–

Jende gutxi erratzen zen Donibaneko karrikan. Gizonezko askok lan egiten bait zuten. Lan egiten ez zuten gizonezkoek maindireen freskuraz gozatzen ikasi zuten. Anderezko batzu ez ziren jadanik freskura horrezaz gozatzen. Kalearen errebueltatik behera, horietarik bat zetorren. Kale estua zen, harrizko kalea. Beste andere bat behetik gora zetorren. Itzalgune batetan hizketan trabatzea ondo etorri zitzaien, zeramatzaten poltsa astunak lurreratzekotan.

«Hasi dituk», pentsatu zuen Joxemik, balorapen orokorrak ematera ausartu gabe besteen ekintzak maltzurkeriaz xehetzen zituzten pertsonak begi txarretik hartzen bait zituen.

Baina segidan poltsak jaso eta itzalgunetik aterata elkarrengandik berezi ziren. Presaka ibiliko ziren, zeren udara bait zen, eta haurrak etxeetan zeuden, eta momentu batetik bestera esna zitezkeen, zeren eguzkia –Joxemiren ile nahasien punta errubiaskak kixkurtzen zituena– teilatuetatik gora zebilen.

Joxemi gau hartako amets gustagarri batekin gogoratzen ari zen. Itsaso, erdi-sekretuan horrenbeste maite zuen emakumeak, bere gela berean lo egin zuen; bi litera zeuden eta bera, Joxemi, goikoan zegoen, eta orduan Itsaso heldu zen eta eztitasunez biluztu zen eta behekoan sartu zen, eta Joxemik «jeitsiko al naiz?» eta «ez» eta «beharbada...» pentsaketan denbora oso goxo iragan zuen; zerbait horrela izan zen behintzat, gaizki akordatzen bait zen.

Gero bihotza taupada azkarrez hedatu zitzaion. Egun ederra zen, eta hori ez zen kasualidadea. Eta azken hilabeteetan behin eta berriro erabilitako ideia bururatzen zitzaiolarik begia ez zitzaion xehetasun nimiñoetan galtzen, eta denbora dena etorkizun iruditzen zitzaion, eta mundua leku bat zelaia...

Aspalditik hitz bat zebilkion buruan Joxemiri: independentzia. «Askatasuna» baino gehiago gustatzen zitzaion. «Askatasunak zailago izan behar dik, zeren denen ahotan zebilek», esaten zuen. «Independentzia ez, hori gure-gurea diagu. Hori han zegok eta haruntza bide xuxena

zeukeagu. Askatasunak ere direkzio berean egon behar dik gainera».

Independentziaren asmoak proiekturik fabulosoenak kontzebitzera eraman zuen. Euskal Herritik aterako zen, eta munduan zehar euskaldunen borroka ezagutaraztearekin batera beste herri zapalduekiko elkartasuna adieraziko zuen. Bi gauza zekizkien: Indiko aldean munta bateko atentatu bat egin behar zuela eta haratakoan Perutik pasatu beharko zuela, han bizi zen alta Manu, lehergailutan espezialista zen euskaldun apaizak, zenbait aholku eman ziezaion.

Lima-rako abioia sei aste barru aterako zen...

Mikel Joxemiren lagun on bat zen. Hor zetorren, etxe aldera, keinu despistatuz.

– Ze, neskak ohetik bota al hau? –hots egin zion Joxemik leihotik.

Mikelek irribarre egin zion. Ez zen bere irribarrea, baina Joxemi ez zen konturatu.

– Bueno –esan zion, atea zabaltzen ziola–, sartu hadi nerean –oheagatik, seinalatzen ziola–, beharra baduk eta!

– Joxemi –Mikelek eskua lepoan ipini zion–, Kapi eta Mieltxo detenitu dizkitek.

Ez zegoen brometarako girorik.

– Diablos! –esan zuen Joxemik–. Noiz?

– Goizaldean, ba –esan zuen Mikelek–; bien etxeetara joan dituk. UARkoak. Txakurrak, tanketekin.... Mieltxorenean atea josi ditek, balazoka.

Momentu batez isilik egon ziren.

– Bale, hi –esan zuen gero Joxemik–; arin ibili behar diagu. Luisi pasa al diok abisua?

– Luisi? Ez ...

– Hi: haruntza joan hadi eta nire partez, orain goazela esaiok; batelean goazela, gauzak paratzeko.

– Ondo –esan zuen Mikelek–; batelean, esan duk... zera, hau ekarri diat...

Esku poltsa tiki bat zen.

– Zer? Paperak? Ondo, ondo... Honekin seguru goazek!

– Bueno, baniak –Mikel irten zen. «Mutil fina duk», pentsatu zuen Joxemik. Gero gauza batzu bildu zituen eta paper zuri batetan honela idatzi zuen:

Lagunak, aita, ama, arreba eta anaiak, aupa! Banoa. Maite zaituztet eta pena ematen dit ez orain musu bana emateak, baina hobe dut honela.

Lan bat egitera noa, eta munduan barrena esango dut, gu hementxe gaudela, eta gu bezala borrokatzen ari direnei esango diet, bat garela borrokatzen dugunok.

Ez dakit nondik-nora ibiliko garen. Trintxerpeko Luisekin abiatzen naiz, eta itzultzen ahaleginak egingo ditut.

Gora Euskadi independientea!

Joxemi

Gero bista gela gainetik paseatu zuen eta irteterakoan suabe itxi zuen atea. Idatzitako aguerra lehenbiziko pisuan bizi zen Joneri eman zion –eta neskak bere begi handi urdinez lasai joateko adierazi zion, eta haren ilaje kapritxosoa asko gustatzen zitzaion Joxemiri–, bere gurasoei eman ziezaien. Gero kaleratu zen, eta Maritxuk, bere balkoitik, alkondara txuria, galtza bakeroak eta zapatila berriak ikusi zizkion, eta eskuan

orain eramaten diren zakutto horietako bat zeramala.

Donibanetik San Pedrora joaten den batelaren tostan jarrita Joxemik arnasa sakon hartu zuen bere herriari begira.

Atarian sartuta Luisen etxetik Glori haren emaztearen ahotsa iritsi zitzaion: – Vaste... Por que te vas agora?

– Teño que ir, muller, non o ves?

– Non, non vexo.

Joxemi ikusirik Glorik bere malkoak sukaldean izkutatu zituen.

Luis minduta zegoen, baina deziduta. Dena prest zeukan, ate ondoan poltsa bat ere. nahiko sagarrarekin.

– Vamos muller –Luisek kariñoz heldu zion–, non me vas a dar un bico?

– Un bico? –esan zuen Glorik–. Seica te vas para moito tempo?

– Non sei, Glori –esan zuen Luisek–, o menos posibre... Eu quéroche moito.

Hitz haiekin eta beste batzurekin Glori piska bat kontsolatu zen, eta Luis ere bai, eta Joxemi

eta biak, kalearen alde batera eta bestera begiratu ondoren, atera ziren.

– Gogorra duk, e? –esan zuen Luisek–. Gogorra duk.

– Bai, gogorra duk –esan zuen Joxemik. – Eta asko maite diat, bera...

– Berak ere asko maite hau, hi –esan zuen Joxemik.

Isiltasun emotibo bat gertatu zen.

– Txakurrak –esan zuen gero Luisek– etxera joan al zaizkik?

– Ez noski! –esan zuen Joxemik–. Joatea bazeukatek, orain!

Luisi, lema zerabilela, begia pittin bat argitu zitzaion. Joxemik ere ez zuen atzera begiratzen; nahiko zereginik bazuten aurrerakoan.

Urrundu ziren...

–II–

Hiru egunetan egin zuten Joxemik eta Luisek Galiziarainoko bidea.

– Galizia –kontatu zion itsasoan Luisek Joxemiri– ez duk pobrea. Jendea bai, pobrea duk Galizian. Kapitalak berea egiten dik eta, tori itzak hondarrak!

Luis hamasei urtetan irten zen Rianxo-tik Euskadirako. Galizia bihotzean zeraman, Euskadiren ondo-ondoantxe. Sorterriko kantak zerabilzkiela bista argitzen zitzaion:

Anda rianxeira,
vente mariñeira...

La Coruña-n Ramon Lopez zelakoaren yatea espropiatu zuten. Horretarako gau-txori bati konortea kendu behar izan zioten eta beste itsasuntzi baten sotoan loturik lagatu zuten. Luis bost itsasotan –batez ere Terranova aldean– trebetutako mariñela zen, nahiz aspaldian lanik ez izan, eta Joxemi, itsasoan gutxi aritu arren –txipi-

roitara joana zen, behin edo behin–, ez zen edozein haize marrumarekin ikaratzen diren horietakoa.

Egunak eta lanak baditu Ameriketarainoko itsas-bidaiak. Are gehiago, bi lagun soilentzat. Joxemi eta Luis ez ziren geldirik egoten, gauez eta egunez segi nahia bait zuten. Makinak geldierazten zituzten une bakanetan, biak edozelango jarreran etzaten ziren eta, loak estali baino lehen, elkarri bertsoren batzu eskaintzen zizkioten:

Ikusiz zuen etxetik gaki
busti zaizkigu begiak
oroituz zoin luze, lanjeros
diren harako bidiak...

Orduan gauza ttikiagoetan ere aritzen ziren, garbiketan, josketan eta sukaldean. Luis gogozki –esan ahal bada– aritzen zen halakoetan, berak kantatutako doinuren bat aski zeukan eskuak edozein lanarekin dantzan ipini zitezen. Joxemik ez zeukan hartarako grinarik, eta sukaldean, kasu, lata pare bat ireki eta berotu baino gehia-

gokorik ez zuen bururatu behin ere. Iruditzen zitzaion, halako lan txikitan behin hasiz gero, sobera zaletu zitekeela, lan txiki horiek handiagotu eta gehiagotuko zitzaizkiola, eta azkenez, detaileetan galdua, garrantzitsuagoko zereginak bazter batera utziko zituela. Luisek ez zeukan teoria horien berririk.

Egun hartan Luisek ekin zion hitz egiteari:

– Inpresionantea duk, itsasoaren indarra. Nire aita baserrikoa duk, bai nire aitona ere, baina aitonaren aita arrantzalea omen huen. Harengandik zoragarrizko istorioak entzunda nago. Itsasoa fuerte huen, baina bera ere bai. eta elkar errespetatzen ziteken. Behin, bahituen itsasoratuak herriko barkurik gehienak; arratsaldean, bueltako garaia oraino ez zelarik, ustegabeko trumoiaren hotsa zabaldu huen herrian. Itsasuntziak azkar itzuliko zirela espero ziteken, baina haien arrastorik ez eta ekaitza gainean ziteken. Emakumezkoek negar egiten ziteken, haurrak beren gorputzekin babesten zituztela. Hartan aitona, herrian bait zen, aurreratu huen eta bere barkura sartu. Eroa, itzultzeko, esaten omen zion kaitik jendeak. Harek ez ziken hitzik esaten

baina begietan erabakia zeramakiken. Portutik atera huen eta jadanik kosta harrotzen zuen ekaitzari buru egin zioken. Hamalau metrotako olatu zuri zikinen kontra jo ziken; bere figura agertzen eta desagertzen huen eta... gero horietako batetan bistatik galdu omen ziteken: Itsasoak jan ziken... Aldiberean ekaitza eztitu huen, itsasgaina baretu, eta laster azaldu hituen zerumugatik itzulian herriko arrantzaleak...

– Historia polita duk –esan zuen Joxemik.

– *A nosa estrela* izena ziken aitonaren barkuak.

Oroitgarrizko isiltasunean egon ziren momentu batez.

– Horrek gogoratzen zidak –esan zuen Joxemik– lehengoan letu nuen artikulu bat. Etxean letu niken, ez zekiat zein paperetan. Hik imajinatu ezak –piska bat inkorporatu zen, hitzak horizontalki atera zitezen– karretera bat, luze eta zuzena. Imajinatu ezak punta batetan kamioi bat eta beste puntan beste bat. Motorrak berotzen dizkitek, abiatzen dituk, elkar ikusten ditek. Elkar ikusi eta azeleragailuak zapaldu egiten dizkitek. Ez zegok bientzako lekurik, halere ez bata

ez bestea ez dituk apartatzen, buruz-buru segitzen ditek... Horixe gertatzen ari omen duk gaurregun bi superpotentzien artean!

– Ez dituk ordea behin ere topatzen!

– Nola topatuko dituk! Bazekitek eta, akabokoa izango litzatekeela. Bakarrik komedia egin behar!

– Ondo errepresentatzen ditek ba, komedia!

– Noski. Amerikanoek besteei errebolberra lepa txokoan ipintzen zietek eta: *eman ala kitto*, esaten zietek. Besteek, sobietarrek, amerikanoek disparatuko ez dutela ia seguru dakitelarik ere, amore emango ditek, badaezpadakoan. Baliteke brometan ez ibiltzea... Eta txarrena hori duk, ez dabiltzala brometan, orduan, zer egin?

– Jo!

– Guk bai, jo, sobietarrek esaten diat.

– Sobietarrek ahal dituztenak egingo dizkitek, ni horrek ez natxok kezkatzen.

Ozeanoak isiltasuna maite du eta bi lagunen hitzak sabeleratzen zituen, izurdeen jolasgaitako.

– Ondo goazela iruditzen al zaik? –galdetu zion

Joxemik lo-kuluxka jarreran prestatu zen Luisi.

– Bai motel, aparatuek engainatzen ez baldin bagaituzte.

– Ura bero dagoela ematen dik.

– Proba egin ezak... ez haiz erreko-ta!

Joxemi kixkaltzen zegoen Amerika ikustekotan. Armak jaso eta zerbait egiten hasteko. Sobera luze gertatzen ziren aldi libreetan ez zion zigarriloak erretzeari uzten, eta Luisek goizero irekitzen zuen pattar botilatik ere tragoska batzu edaten zituen, bere «molekula faboritoak» bizkortu zitezen. Lotarako lujo itsusizko kamarote batetan txandakatzen ziren, hamargarren egunerako –zetazko maindireak, lehoi kiratsa zeriela, alde bat urratuta– ezin hobeto egokitu zitzaiena.

Azkenekoz, noizpaiten buruan, lurra ikusi zuten; ifarraldera, gauza harrigarria. Luisek egin zituen bat-bateko kalkuluen arabera, harek irla bat izan beharko zuen, zeren ez bait zen posible Brasil alde hartara izan zezaten.

– Karibea! –bota zuen Joxemik–. Pittin bat despistatu haiz, adiskidea.

– Ez zekiat nola izan den; ondo gentozteken eta.

– Bai ondo! Pelikula batetan nintzela uste niken!

Eta orain, zer?

– Bertara arribatu beharko diagu.

Arribatu artean herri koxkor bat distingitu zuten eta bertaraino txalupan hurbildu ziren. Etxe desberdinetako herria zen, horia, berdea eta euriak gastatutako lasto kolorekoa.

Txalupa utzi eta oiloak eta txerriak libre zebiltzen herri hartan sartu zirelarik, etxe batetik ateratako builak bertara joanarazi zituen. Etxea edo taberna, ez zuten jakin, behintzat dozena t'erdi bat lagunek zerbezak hustutzen zituzten, denak telebistari begira.

– Kuban gaituk hi... –esan zuen Luisek ahapetik.

– *...¿O vamos a seguir escribiendo cartitas? Una novia que no quisiera saber nada de un enamorado, les habría hecho más caso a las cartas de amor, que el caso que el Grupo de Bonn le ha hecho al Grupo de Cartagena, iseguro! Es el despecho más grande, más increíble. No hay mane-*

ra de flechar el corazón de los magnates de Bonn, de los dueños del dinero del mundo. ¿Vamos a seguir escribiendo cartitas implorantes? –Lanpara batetik dindilinkatzen zen musker tipi batek ezetz egiten zuen, buztanarekin– *¿Qué hacen los trabajadores de un sindicato cuando les vienen fastidiando mucho y el patrón no les hace ningún caso? ¿Qué hacen? Cuando ya se cansan de pedir y de repetir: «Mire, patroncito, escúcheme, atiéndame, que los muchachos están descalzos, que los muchachos no comen, que no tengo dinero para las medicinas, que no me alcanza nada. aue me entra acua en la casa» y no les hacen caso, van a una huelga. Entonces, lo que nosotros estamos planteando en esencia, para que sea más inteligible, es una huelga general de deudores, ihuelga general de deudores!*

– ¡Habló bien! –esan zuen tipo argal batek jendeari begiratzeko bueltatzen zelarik.

– ¡Lo dijo todito! –erantsi zuen buruan trapu handi bat zeraman emakume gerri lodi batek.

Orduan isildu ziren; Luis eta Joxemi ate ondoan zeuden, kukusoak bezala.

– ¿Y ustedes quienes son?

– Yo Joxemi y éste Luis.

– ¿Y de dónde han salido, madre mía? –denak begira zituzten.

– De ahí mismo, del mar.

– ¿Y qué van a tomar? –emakume beltz ipurdi laxa batek gonbidatzen zien. – Cerveza.

– Yo también, cerveza.

– ¡Mi madre! ¡Ustedes son gallegos!

– Yo, nacer, gallego soy –Luisi mihia trabatzen zitzaion, horrelakoetan.

– ¡Jose! –mutil masail hezurtsu batek mahai batera jarrita zegoen agure flakoska altxarazten zuen:

– ¡Gallegos!

– ¿Gallegos? –agureak entenditzen zuen eta hurbiltzen zitzaien– ¿De dónde?

– No gallegos: vascos –erantzun zuen Joxemik. – Euskaldunak?

– Bai!

– Ez!

– Bai!

– O, euskaldunak! –eta agurea zeharo deskontrolatu zen, besarkatu zituen, dantza egiten hasi zen, irrintzi bat ere egin nahi izan zuen

baina eztarriak debekatu zion... Jose Mondragoikoa zen, Maitxitxe baserrikoa, eta hogei-ta-bost urtetan joana zen Kubara.

– Urte asko, Kuban! Yo soy cubano, como quien dice, pero Mondrague... Hura baitzen herri polita...! ¿Y ahora ustedes qué quieren allí? Gerran zaretela diñote...

Pasaiakoak zirela jakin zuenean, Antxion arreba bat bizi zitzaiola esan zien, bizi baldin bazitzaion, hogei urte bait zeraman haren berririk izan gabe, eta orain, kontatu zienez, tabernaleku hartan eta paseatzen igarotzen zituen egunaren puskarik atsegingarrienak.

Vicente presentatu zien, ehun eta hamaika urtetako beltz figura harroa, mutiletan esklabua izan zena eta independentziaren aldeko gerrateetan borrokatutakoa.

– Vicentek aldegin zuen del ingenio, cimarrón ibili zen, bera bakar-bakarrik, mató a uno que le iba a matar como si fuese un perro, eta gero Maceorekin gerrara sartu zen; Vicente es muy bravo, eh, Vicentico, ¿has visto qué mozos?

– ¿Qué hablas viejo? –esaten zuen Vicentek–. Yo no entiendo ni papa.

Herrian festa handia egin zuten Joxemi eta Luis han zeudelako. Ilundutakoan milizianoak azaldu ziren, ea bi «gallego» haiek Santa Maria del Rio-n zertan zebiltzen, orduan Joxemik, edozer gerta ere, Bilbon hasi eta San Juan de Puerto Rico-n bukatzen ziren bi turista polipo-zaleen abenturak inprobisatu zituen, eta milizianoek, historiaren absurdoak erabat abailduta, insistitu gabe, libre utzi zituzten. Txerri bat hil eta osorik jan zuten eta Luisek jotzen zuen ron zurrut bakoitzeko bi zurrut zerbeza jotzen zituen Joxemik. Goizean aski berant lokartu ziren bohio batetan.

Hurrengo gauean mozkorra berritu zuten, zeren eta Luisi bihotza neskatxo indiferente batekin enamoratu zitzaion, baina hirugarren eguneko eguerdian Joxemik «goazen, ala?» proposatu eta pare bat ordutara bi lagunek Brasil aldeako itsas bidezidor batetik barna zihoazen.

Deskantsuaz eta erregai berriaz arindutako barkuak atzera lagatzen zituen Luisen hasperenak.

– Hori duk mariñel klasea! –jotzen zion Joxemik adarra–. Hi itsasoan utziko haute, besteak porturatzen direla!

– Hori duk hori reboluzioa! –erantzuten zuen Luisek irribarre batekin, begiak urrutira galduak.

Gau hartan bertan, herritarrek erregalatutako ron botila batetik xurgaka-xurgaka aritzen zirela (tragoska tikitan edaten zuten, gaua luzatu zedin), hitz gutxi eta laburretan Kubako esperientziaren balantzea egin zuten, eta Luisi nonbait aditutako istorio batzu gogoratu zitzaizkion.

– Duela, zer esango diat nik?, berrogei bat urte, gutxiago seguru, Kuban ez zegoken gailego ez zen arrantzalerik. Galiziatik etorri eta La Habanako itsasondoko barriobajo batetan, Peixiñon, jartzen hituen bizitzera; klaro, denak gailegoak nola ziren han, laguntzarik ez ziteken falta, lanik ere ez, honetan edo hartan. Pasaia maíz antzera jotzen duen Camagüey-ko mariñel batek kontatu didanez, barrio hori ez duk orain existitzen, iraultzak bota omen ziken, txabolak nola ziren haiek. Gero gailego haiek orain barku patroi dabiltzanei erakutsi omen zieteken ofizioaren berri. Ale batzu bazeudeken... Bat bazegoken inorekin hizketatzen ez zena: tipo harrigarrizko bat! Inoiz edo behin, zera egiten omen

ziken, gutun bat idatzi eta botila batetan sartuta itsasora bota, norentzat ote...

Karibeko puntu kulunkari batetik gogorapen zaharrak lurruntzen ziren. Joxemik ez zuen bista uretatik alderatzen.

– Nire amonaren bi anaiak Nevada-n ziaudek, hor nonbait iparraldera. Zaharrena 1920an irten huen honuntza, diruzale amorratua omen huen, lurrak erosi omen zizkian eta zerri hutsa bilakatu huen. Bestea bost urte beranduago etorri huen, ilegal, legez itxi bait zen inmigrazioa, bestaldera joan eta handik etorri huen; hau beti ibili izan duk batetik bestera, artalde tikiekin, mendirik mendi; «artzai arloteak» deitzen omen zietek amerikanoek horrela ibiltzen direnei; orain Elko-n bizi duk, erdi-india batekin esposatu huen eta urtean behin bere bertso batzuk bidaltzen zizkiguk, ez dik gizajoak itzultzeko esperantzarik galdu:

Jinko-Jaunak emaiten badit neri behar den indarra, duda gabe ikusiren dut nere sort-leku xaharra.

Horrela mintzo duk, frantsesen moldean, beti horiekin dabilela-ta. Pobre duk ordea, zaharra,

ez duk etorriko hori. Bestea Winnemucca-n bizi duk, zerria. Ez diat bat ere maite, hori; lepotik heldu eta...

Joxemik Luisi heldu zion atorraren lepotik eta uretara botatzearen imintzioak egin zituen. Luisek «axut!» eginik erreakzionatu zuen eta biak erori ziren jira-bueltaka. Joxemi handiago zen, baina Luis indartsuago, aparte salbaje samarra. Dena den Joxemik zapatila bat galtzearekin bukatu zen kalapita. Zutitutakoan, Luisek galtzetako hautsa astintzen zuelarik komentatu zuen:

– Hiri, demonio horri, Brasilen neska bat bilatu beharko zaik!

Joxemik bista piska bat altxatuz erantzun zion:

– Euskaldunekin bastante zeukeat, neskatan! eta erantsi zuen:– Brasilen, Amazonas bilatuz gero, konten!

–III–

Mapetan agertzen ez den ur korronte batek Amazonasen ahoraino eraman zituen. Han Ramon Lopez-en barkua utzi eta Belem-etik ibai zabalean gora abiatu ohi den untzi horietako baten pasaiari bilakatu ziren. Mikelek eskuraturiko pasaporte frantsesei esker ez zuten problemarik izan. Tamalez Luisek, hala erabaki bait zuten, ez zeukan brasildarrekin gailegoz mintzatzerik, eta frantsesez nola ez bait zekien, Joxemik, inoiz laguna bistatik galdu gabe, «je ne comprends pas» eta «je ne sais pas» esaten irakatsi zion, portugesez zein frantsesez aritzen zitzaizkiolarik ere.

Itsasoan segitzen zuteneko inpresioa zeukaten. Lehenbiziko untziak Manaos-eraino eraman zituen, handik aurrera –jadanik ibai ertzetako jendea distingitzen zutela– beste bapore batek, jende gutxiagorekin, gehienak goragoko herri eta herrisketara, beren etxeetara itzultzen zirenak. Baporearen kapitain jende. apala gaizki esaka erabiltzen zuen indibiduo degeneratu bat

suertatu zitzaien, eta Joxemik pirañetara –ikusi ez zituzten pirañetara, bestalde– botatzeko gogak erreprimitzen zituen.

Paisajearen handitasunari begira zoramenak zapaltzen zituen gure bi lagunen pentsamentuak. Ibai bizi bat zen, geografia etengabe itxuraldatzen zuena, bertan finkatu nahi zuen edozein kulturaren arrastoak ezabatzen zituena, bere mila adarrez oihan guztia besarkatzen zuena.

– Hau ez duk sinistekoa –birritan baino.gehiagotan komentatu zion Joxemik Luisi–. Gezurra zirudik hemen gaudenekoa.

Goizero, jeikitzearekin, aurreko egunean ziren leku berean segitzen zutela inpresioa jasotzen zuten. Ura, eta argia, eta basoa, hiru elementutan barrena irekitzen zuten bide neketsu bat. Batzutan, urez zamatutako hodeiak urreratzen ziren, eta toldo tipien babesa bilatzen zuten denek, eta minutu gutxi batzuk eta gero, lehenagoko eguzki berak argitzen zuen ibaia, eta lehortzen zen untzigaina, eta mila txoriren heiagoraz zorabiatzen zen adimena.

Joxemiri, Euskadi ere mundu eskerga haren parte txiki bat zela pentsatuz, begiak humedetzen zitzaizkion. Luisek beroak lurrindutako aire heze tropikala bereganatzen zuen, satisfakziozko irribarrez.

Arrats aidera, geroz eta gehiago, eltxoez estaltzen zen ibaiaren gaina, eta Joxemi eta Luis, ahalge haien kontra, bi literadun kamarote txikian gordetzen ziren. Isiltasuna ere pairatu ezina bilakatu zitzaien, eta irratia . edozein ondatan, berdin zen– beti piztuta eramaten zuten.

Hirugarren astean Amatau-ra jo zuten. Hango geldialdian kristauen festa bat ikusi zuten, argizaia urtutako kandelaz jositako gurutze tipi baten inguruan. Paolo zeritzon bertako batek istorio ikaragarriak kontatu zizkien, nola bere aitari lotan zetzalarik ehun-zango bat belarritik sartu zitzaion eta handik ezin atera zezakeen eta muinak jan bait zizkion gizarajoa erotu zen...

Handik abiatu eta laster, ibai bazterretik gertu pasatutakoan, bi indio, gizon-emakumea, ikusi zituzten, zutik, geldirik, arin jantzita. Baporearen joana begi gogorrez ikuskatzen zuten,

areriotasunez. Joxemik bihotza urratzen zitzaiola nabaritu zuen.

– Akabatu dizkitek, akabatu dizkitek...! –esan zuen, begia haiengandik apartatu gabe, eta mina eztarrian korapilatzen zitzaion–. Anaiak, gure anaiak... bentzitutako anaiak...!

Hego zein Iparraldeko, Joxemiri Ameriketako indioen desagertu beharra humanidadearen episodiorik negargarrienetarik bat iruditzen zitzaion.

* * *

Perurekiko mugan ere ez zuten oztoporik izan. Jadaneko Luisek «bon jour» eta «ça va» eta «merci» eskisitoki pronuntziatzen zituen, eta hirurak esan zizkien mugazain zeuden goardia zibilei.

– C'est jolie, le Perou –esan zuen Jean Lafayette zelako turista frantsesak, euskaldun azentoaz, *sinchis*en aurrean, eta hauetako batek hortz artetik txistu eginik «mierda pa ti, cabrón» egotzi zuen.

Perun bidaia gogorrago bilakatu zitzaien. Marañón-etik gora noizpait Iquitos-a iritsi ziren, gero handik kamioz behar zutela adierazi zieten, baina Ornaguas-etik hurbil autobusa geiditu zen eta arrankatu zedin emaniko orru eta ostikoak oro alferrikako gertatu ziren. Zurezko maletak, oiloak, koltxoiak, platano mordoak, burdinezko oheak eta patata zakuak zeramatzaten nekazariekin batera oinez ibiltzeari ekin zioten umore tristean.

Marañón eskubitara utzi eta Ucayali-ri jarraitu zioten. Nekazari mesfidatu batek Atalaya-ra nondik edo handik aste bitan heldu zitezkeela esan zien, eta haiek horretarako jakiez zamatu ziren, baina bi ezik bost ere behar izan zituzten hartaraino. Egun ale haietan nahi baino gehiago sufritu zuten, oihan mospelean galdurik, zenbait egunez giza arrastorik begiztatu gabe. Egarria tormentu bilakatu zen, eta behar ez zen lekutik edan zuelako koliko txar batek bomitoka erabili zuen Joxemi pare bat egunez. Ez zeramaten hartu eta hitzetik hortzera sendatzen zaren halako medizinarik, eta itxoitia baizik ez zitzaien gelditzen. Bibereak eskastuta zebiltzen, eta gose

gau batez Luisi «ez duk gehiegi jan behar; txarra duk» intentzio onez esatea gogoratu zitzaiolako parretan lehertzeko zorian gelditu zen Joxemi.

Atalaya-tik goiti Tumbo ibaiak egiten du bidea, Puerto Prado-raino, handik berriz Ene ibaia, eta gero Apurimac. Apurimac-en bazterretatik egun batez ibili ondoren mendira jo zuten, San Miguel-era, non euskaldunak bizi omen ziren komentua kokatzen bait zen.

Hara bitarteko harridi batetan kaxkodun gizon-andere bikote bat aurkitu zuten, odol idorra erakusten zuen txuriz jantzitako gorpu gazte baten aurrean negarrez.

– Huahuachallaytam cay supayp a huahuancuna huañurachiscca, Ignacio –esaten zuen andereak, aiaiaika–, imanasccan sacciruhuanqui, pitac pachachihuancca, micuchihuancca... (*Debrukume horiek Ignacio hil didate, nire semetxoa, zergatik utzi nauzu, nork emango dit jatekoa, janztekoa...*)

Aitzinxeagoko atso ikarati bati Luisek galdetu zion:

– ¿Qué pasó ahí?

– Runa huañucchicci runa –erantzun zion atsoak sententziatsu eta burua makurtuz jarraitu zuen. (*Jendeak akabatzen du jendea*)

Aurrerago jende gehiagorekin topatu ziren, eta beldurra eta ikusmina nabarmentzen zitzaizkien aurpegietan. Joxemi ez-eroso sentitzen zen jende normaiaren begirada inkisitibopean; lehenbaitlehen armak hartu eta handik aldegiteko gogoa sentitu zuen.

Espainolen komentuagatik galdezka-galdezka, San Miguel-a sartu gabe, etxe zahar, urdinska, pisu baten aurrean gertatu ziren. Itxuraz ez zen inor bazterretan, halabaina ate nagusia zabal-zabal eginda zegoen.

Sartu eta gelatzar batetako lurrean bakar-bakarrik jarrita zegoen berrogei urte inguruko gizona berehala ohartu zen, haien presentziaz, eta fijo begiratu zien, gero esateko:

– Ayau!

– Aupa! –erantzun zuen Joxemik, gizon harek konfiantza ematen bait zuen-; oiga, ¿no es ésto el convento de San Francisco Javier?

– Sí...

– Y, ¿está usted solo?

– No; estoy acompañado.

Gure lagunek, inor ikusi ez eta, ez zuten entenditu.

– Y el padre Manu, ¿no está? –galdetu zuen Joxemik.

– Aita Manu lehengo astean afusilatu zuten –erantzun zuen gizonak, eta aurpegia ez zitzaion batere itxuraldatu.

Joxemik eta Luisek apur bat izututa elkarri begiratu zioten.

– Eta zu nor zara? –galdetu zion Luisek gizon misteriotsu hari, eta aldi berean gelara pixka bat gehiago sartu zen, erdi lasapidean, erdi ofentsiban ba-_ daezpadaere.

– Ni Patricio naiz –eta gizonak adiskidetasunezko seinale bat egin zien pasatu zitezen, eta erantsi zuen:– Laguna.

– Zer gertatu zaio, bada, aita Manuri? –galdetu zion Joxemik, eta Luis eta biak azkar jarri ziren lurraren hautsaren gainean.

– Denak hil zituzten. Bost apaiz bizi ziren hemen, eta denak hil zituzten –Patricio geldi mintzatzen zen, ele bakoitzarentzat leku bat utzirik–. Aita Manu, aita Policarpo, aita Patxi, aita

Mateo eta aita Lopez de Gereñu. Mateo peruarra zen, Cuzco-koa. Beste lauak, euskaldunak.

– Baina nola hil, zeinek hil ditu?

– Zeinek hil? Marinoek.

Patriciok alboan zeukan *huallqui*tik koka ale batzuk hartu zituen, lagunei eskaini zien –ezetz esan zuten, biek, jan minaz ahaztuta–, eta *ishcupuru*ko hautsez lagundurik *chacchatzen* hasi zen.

– Hemen izan zen, edo non, edo zer...? –Joxemiri Patricioren egonarria gehiegizko gertatzen zitzaion.

– Aita Polikarporekin hasi zen dena. Berak ekarri zituen hona senderista batzu; jana eman zien, eta babesa... Sei egunez eduki zituen. Aldegin behar zutenaren bezperan etorri ziren marinoak. Ni ez nintzen hemen, horregatik salbatu nintzen. Alditan azaltzen naiz bakarrik, nire komunidadean aritzen bait naiz. Ez naiz beren laguna, horregatik hilko nindukete. Baina, kanpoan nola nintzen. Jakinaren gainean etorri ziren soldaduak hona, norbaitek abisu emanik. Asko etorri ziren. Senderistak ez ziren erresistitu, konprenitu zuten. Batek bakarrik, tiro batzu egin zi-

tuen, baina ez zion eman inori ere. Marinoak kuntur bezala zetozten. Aita Policarpo, aita Patxi, zaharrak izanda ere, oso gaizki erabili zituzten. Eliz-gizonak gainera. Ez ziren inorekin urrikaldu. Gazteak era basatian torturatu zituzten, gero ametrailatu zituzten. Eta, apaizak ere bai –pausa bat egin nahi izan zuen Patriciok kokaren dastatzeko, baina Joxemik galde-keinu azkar batekin eragotzi zion–. Aita Manu oso laguna neukan. Urteak pasa ditugu bata bestearekin. Harek erakutsi zidan euskaraz mintzatzen. Euskadira itzuli nahi zuen. Euskalduna zen.. baina bertakoa ere bai, gure jendearen laguna, ketxueraz hagitz ongi mintzatzen zen. Harahuiak kantatzen zituen. Harek, bazeukan susmoa. Horregatik esan zidan, ezer gertatuta ere, kontaktua Tanzanian zegoela. «Patricio, esan zidan, Euskal Herritik bi lagun etorriko dituk, eta haiei pasako diek...»

Segidan Patriciok mendi haietan agituriko beste gertakizun triste batzuren berri eman zien. Herenegun bertan Maximo Sulca, mendian bizi zen Ilama-zaia, eta inork zergatik ez zekien, nola detenitu zuten, etxean torturatu, eta orain desagertutzat nola jotzen zuten, eta nola probable

zen handik laster edozein amiltegitan hilik agertu zedin. Zuela hilabete bi San Miguel-en bertan Rosinda Quispe izeneko hamalau urteko *sipascha* hil baino lehen nola bortxatu zuten eta bularrak moztu zizkioten. Mendi-mendiko komunidadeetan armadakoak nola ibiltzen ziren, nekazari pobreei jakiak eta arropak eskaintzen, jende ezezaguna salatu zezaten. Eta zein biolentzia eta miseria...

Joxemi txit inpresionatzen zen halako kontakizunekin. Euskaldun gehienek bezala, sentsibilidade berezi bat zeukan errepresioari buruz, zeren eta txakurrek aski lagunik akabatu zioten, eta Jesus bere anaiari pelota tiro batez begia saltarazi zioten, eta berari, zuela hamar jirte atxilotu zutelarik, hatzazaletan zotzak sartu zizkioten eta buruan plastikozko poltsa bat ipinita behin eta berriro konortea galerazi zioten.

– Gauza txar asko gertatzen ari da –esaten zien Patriciok–, eta gorroto handia dabil.

Gero zorro batetik patata erre batzu atera zituen eta lagunei eskaini. Haietatik bai hartu zuten Luisek eta Joxemik, zeren nahiz azken

egunetan apenas patata baizik ez zuten sabeleratu, goseak harri kozkorrak samurtzen ditu.

Patriciok, polliki bazen polliki, mihia deskantsu gabe zerabilen.

– Errua espainolek dute. Erruaren erroa. Haiek hasi ziren gauzak eramaten, gure lurretatik, haiek hasi zuten ebasketa. Gure semerik onenak hil zituzten, gure alabarik onenak bortxatu zituzten. Gero sortu zen jende bat ez hemengoa eta ez hangoa, eta haiek egin zuten independentzia; guk ez dugu independentziarik; guretzat independentzi horrek ez du ezer esan nahi, mina esan nahi du, geure kultura ez galtzearren ahalegin handiak egin behar ditugula...

Mintzaera gozoa zuen Patriciok; Joxemik mokadu ttikitan jaten zuen eta Luisen betegalak oso zabalik zeuden.

– Aita Manuk erakutsi zidan, euskaldun batek esana: «Jainkoak odola ixuriz salbatu gaitziken, eta guk ere odolik ixuri gabe ez diagu aberririk askatuko».

– Bai, hori Atañok esan zuen –esan zuen Joxemik.

– Aita Manuk –esan zuen Patriciok– bihotz handia zeukan.

Luisek hasperentxo bat askatu zuen. Joxemi Tanzaniarekin ari zen pentsatzen. Kanpoan hotsak aditu zituzten. «Txakurrak...!» «Xux!» –agindu zuen Patriciok-; tori...» Harlauxa baten azpitik pipa bat eta kañoiak moztutako eskupeta bi atera zituen. «Ez egin tiro, ba!». Bi *sinchis* besterik ez ziren. Bat sartu zen gelan, eta Luisek otx! egiten ere ez zion utzi; seko erori zen, hilda beharbada. Kolpe hotsean bestea sartu zelarik, bost zulo beltzek apuntatzen zuten.

– No me maten, yo me mandaron, yo...

– A tu hermano matarías, si pudieras, cabrón –esan zuen Patriciok, eta pistolaren kulataz terribleko lepokoa jo zion–. Jaku kayninta! (*Goazen hemendik*).

Armak harlauxapean utzita irten ziren handik. Gero San Miguel-en autobusa hartu zuten, Limarako. Patricio isilik zihoan; bazekien orain, bueltatu nahiagatik, aurrera segitu beharko zuela; berak ere, komunidadetik hirira aldegindako lagunek bezala, aurrerantzean mendiare-

kin amets eginez konformatu beharko zuela. Zimur ilun batek kopeta erdibitzen zion.

Liman denbora gutxi galdu zuten. Luisek eta Patriciok goiz bat iragan zuten bigarrenarentzat arropa berria erosiz eta *llanque*en ordez zapatilak. Patriciok dena eramaten zuen, txintik atera gabe.

Anartean Joxemik –betaurreko beltzez, loredun alkondaraz, arranditsu, yankeen irudiko– telefono dei garesti pare bat egin ondorenean bileteen asuntoak konpontzen zituen. Tanzaniaraino abioiez joango ziren, lau etapatan: Lima-Manila, Manila-Yakarta, Yakarta-Sri Lanka eta Sri Lanka-Dar-es-Salaam. Dar-es-Salaam-en norbait –zeinarengandik bakarrik zekiten oinetan zapata gorriak eta eskuan *Le Monde* eramango zituela– zai izango zuten.

Patricioren bisetarako ez zen problemarik izan, aita Mateoren pasaporte peruarra guztiz legala bait zen, eta fotografiaren trukatzea joku bat izan zen.

Bazkalondo batetan aireatu ziren. Motorrak martxan jarri zirelarik, Patriciok «achachau» txutxurlatu zuen, eta gero bidaia guztia aurrera be-

gira eta prediku ulertezinak esanez igaro zuen. Beharrik halako batetan Luisek galdetu ziolarik:

– Zergatik esan zenigun, komentuan, ez zinela bakarrik, bakarrik zinelarik? –ketxuarrak erantzun zion:

– Ez nintzen bakarrik: Han ziren patatak ere.

Luis onetan jarri zuen Patricioren esanak, eta handik aurrera bere eskakizun inposibleekin azafata bat baino gehiago erdi-txoratu zuen. Joxemi euskaldunek Ameriketako historian izan duten presentziaren balantze bat egiten entretenitzen zen:

– Lope de Agirre eta besteren bat kenduz gero, traidore asko izan da gureetatik. Eta bertako pobreen aidera lerratu direnak, hemen kabitzen dira, hemen...

Eta bostekoa altxatakoan alboko lagun pakistandarra edaten ari zen tearekin arras bainatu zuen.

Gero lokartu zen, burua proiektuekin dantzan zeramala. Handik ordubetera Itsaso azaldu zitzaion ametsen batetan, «esaidazu, esaidazu ni maite nauzula» eta geroago hala ere pentsarazi zioten beste disparaterik franko esaten ziola.

–IV–

Lehenbiziko abioi hartan *Zeruko Argia* irakurtzen omen zuen Manilako fraile bat ezagutzen zuen filipino berriketalari batekin solastatu ziren. Bera Mindanao-koa zen, Davao-koa, non gerrilari musulman eta komunistek mendialdea kontrolatzen zuten.

Bigarren abioiak Yakarta hiru ordutan jo zuen, geldialdi luze samarra eginez. Hirian bueltaska bat emanik Luisen jakituriak, egur balkoi batetan irribarre egiten zion neska bati mintzatuz, Joxemi eta Patricio aho zabalik utzi zituen:

– Hai! Apa chabar?

– Sudahlah! –erantzun zion neskak-; dan, kamu?

– Baik! –eta esku-musu bat bidaltzen ziola:– Selemat tinggal!

– Ya!

Neska pittin bat lotsatu zen, zeina Luisi gustatu zitzaion. Lagunei esan zien:

– Barku batetan oso ongi konpontzen nintzen mariñel bat izan genian hemengoa, eta elkarri hitz kurioso pare bat erakutsi genioken.

– Eta, zer esan diok? –galdetu zion Joxemik, inbidiazko doinutto batekin.

– Ea zer moduz zegoen... Gehiago ez zekiat eta!

Kale luze bateko jatetxe zikin batetan afaldu zuten. Haragi puxketa naranjez apainduriko arroz marroiska sartu-ala, Joxemiri displazerrezko espresioa areagotzen zitzaion, baina Luisen eta Patricioren kokotzak erritmikoki mugitzen zirenez, apetito falta alegatu zuen.

Teak eta zerbezak sabore txarrak ahaztuerazi zizkieten eta munduaren handitasuna gogoerazi.

– Indonesiak –esan zuen Joxemik, lagunak inpresionatzekotan– hirurogei aldiz zeukak Euskadiko populazioa... Oreka zaila zegok alderdi hauetan... Alde batera, Indonesia eta hauek, Singapur eta Malasia, amerikanoek aldebat harrapatuak. Beste aide batera, Vietnam eta... nola dituk horiek? Horiekin kasu...! Birmania, bere gisa zebilek; bere gisa, ez dago malo. Gero

Txina, hor goragoan, goitik behera edo behetik gora edo badakit nik zertan dabilen... Japonek ere eskua leihotik atera eta heldu egiten dik... Interes guztiak lotzen dituk hemen eta gerra bat izango duk.

– Gerra? Ez duk gerrarik izango! –baieztatu zuen Luisek; baina lurrari begira zegoen.

– Ezetz? Egon! –esan zuen Joxemik, krudelki.

– Ez motel! –eutsi zion Luisek gogorki.

Patricio kokarik gabe munduan oso estraino sentitzen zen, baina orain, ahots poetikoaz interbenitu zuen:

– Vietnamek ez du utziko gerra egon dadin. Gogoan dauzkate pasatako kalamidadeak eta bakeari eutsiko diote. Vietnamdarrek bihotzez maite dute bakea, egiazko bakea, independentzia eta askatasunezko bakea...

Ho-ren hitz haien oroitzak Joxemi eta Luis eztituarazi zituen.

– Ho –esan zuen Joxemik– izar handi bat izan da humanidade guztiarentzat. Harek frantsesei esan zizkienak, Vietnam Frantziaren kolonia zelarik: «Adiskide frantsesak: zuek Frantzia maite duzue, maite duzue haren independentzia. Zuen

aberkideak maite dituzue, eta libre izan daitezen nahi duzue. Ohorezko sentimentuak, gizatasunez beteak. Ez al zaizue iruditzen, baina, guk ere badugula gure aberria maitatzeko eta haren askatasuna desiratzeko eskubide berdina?...»

Luisi zurrut battok buruan zerabilena ahoratzen lagundu zion.

– «Nire azken nahia: gure herri osoak bat eginda borrokatuko du, Vietnam baketsu, batu, independiente eta aberats baten aide, eta munduko iraultzari bere aportazioa egingo dio».

Momentu majiko bat izan zen. Jatetxea argitu zen, eta askatasuna datorrenaren usaia aditu zuten. Bazekiten Ho-ren hegalaldian beste milaka, beste milioika lagun berekin abiatu zela.

Gaueko mozkorrak rupiarik gabe utzi zituen, eta hotela bilatu zezaten kondizio eskasetan. Antzeman zuten kainaberazko txabolatik zeruko izarrak ikusten ziren, eta Luisi zenbait gogorapen inkoherente bururatu zitzaion.

Euskal Herritik hona
badago mudantza

Geroxeago zorro lokartu zen, Patricioren gainean, nolabait.

Joxemik gehiago iraun zuen, Hondarribiako hondartzan zela imajinatu zuen, etzanda, gauez, bikote bat ur bazterretik paseatzen zelarik. Bakarrik sentitu zen. Gero emakume bat hasi zen hizketan, txabola ondoko etxe batetik. Hain ahots goxoa iruditu zitzaion Joxemiri...! Zer-edozer ari zitzaion beste norbaiti kontatzen. Joxemik bihotzaren fondoraino sartu nahi zukeen neska haren ahotsa, eta gorputza. Geroago, haurño bat izatea otu zitzaion. Zeinekin izango zuen? Bere burutik ezaguturiko, maitaturiko neskak pasatu ziren. Ustez...

Biharramunean, abioian, Patriciori ea semealabarik ba al zuen, galdetu zion. Patriciok baietz erantzun zion. Ea zenbat.

– Hiru San Miguel-en, bi Ayacuchon, batean, bestean...

– Bost, orduan?

– Ez dakit bost, batetik pasatzen zara, gero beste batetik pasatzen zara... Nola jakingo duzu...? –pausa bat eginik gero segitu zuen:–

Gauza asko dago ez dakizkigunak. Eta jakin behar ez ditugunak, ere bai.

Colombon ordubeteko eskala egin zuten eta hortik Dar-es-Salaam-erako bidaian Patricio –abioia bere enkantoa galtzen hasi zen, eta gainera bizitzan inoiz ez zen horrenbeste nekatu– lo joan zen, hankak airean eta musua erdi zabalik.

Tanzaniako hiriburuko aireportuan indibiduo bat bakarra aurkitu zuten Pariseko Le Monde irakurri eta zapata gorriez janzten zena. Yusuf izena zuen eta arabearen eta beltzaren manerak erabiltzen zituen.

Yusufek automobil batera sarrerazi zituen eta bera iarri zen gidari; gustora konduzitzen zuen, kaleak ongi ezagutzen dituenaren estiloaz.

– Hau ondo ziak –esan zien Luisek bere bi lagunei.

– Hala ematen du –esan zuen Patriciok, gizon prudenta.

Joxemik ez zuen deus esan, ze besteek ongi adierazi bait zuten berak pentsatzen zuena.

Yusufek kostatik kontinente barrura berrogeitamar bat kilometrotara dagoen eta karreterak erdibitzen duen Mwendapole herrira eraman zi-

tuen. Etxeak lurrezkoak ziren eta soroak arto eta mijozkoak. Gelditu ziren etxearen barrutik indarrezko ahotsa ateratzen zen.

– C'est Hamisi –anuntziatu zien Yusufek oso irribarretsu.

Etxera sartuta hogei urtetik oso gora joko ez zuen mutil bat aurkitu zuten, aulki baten gainetik esistitzen ez zen publiko bati bero bai bero mintzatzen, hitzaldi izugarri batez.

– Hodi! –deitu zion Yusefek atetik.

– O! –mutila prestu jeitsi zen– Poleni! Karibu, karibu! (*Barkatu! Sartu, sartu*)

Sugea baino biziagoa zen, oso guapoa gainera.

Presentazioak egin zituzten, gero Hamisik gauzak zertan zeuden kontatu zien. Hamisik swahiliz egiten zuena, Yusufek –bai gizon poliglota, arabeaz eta inglesez eta portugesez gutxienez ere bazekien etafrantsesera itzultzen zien. Joxemiri zegokion zirkuloaren osatzea.

– Ni Hamisi naiz. Yusuf ezagutzen duzue. Gizon ona da Yusuf –eta eskua ukitzen zion, eta hortzak erakusten zituen, eta Yusufek ere bai, hura itzultzeko enbarazuan–, denari buruz hitz

egiteko gizona –gero goibeltzen zen:– Jakin dut, aita Manuri gertatua. Anitz tristetu nintzen, anitz preziatzen nuelako –gero atzera alegratzen:– Bueno, orain, zuek, ongi etorriak.

Eskaini zizkien naranjetarik eta gailetetarik probatu zuten gure lagunek. Patriciok ez, Indonesiaz gero sabela pisu eta minbera sentitzen bait zuen.

– Hiru egunez –segitu zuen Hamisik–, hemen egongo gara; asteartean abiatuko gara. Hemen gaudenok beste inork ez daki ezer operazioaz. Zuek turistak zarete. Eta turismo pixka bat egingo dugu bai!

Hamisik intxaurdi batetan lan egiten zuen, herriak zituen propietate kolektiborik bakarrenetakoan. Intxaurren komertzializaziotik aurreneko urtean irabazitako shillingez aurten oilategi bat eraiki zuten herritarrek eta ongarri mineralak erosi. Baina landa gehienak oraindik pribatuak ziren.

– Sozialismoak ujamaak bultzatu ditu. Ujamaak «familia handia» esan nahi du. Ujamaa herri berria da, sozialismoaren herria, mendi puntetan galdutako nekazariak biltzen dituena.

Horrela nekazaritza bilakatu daiteke eta ez hori bakarrik. Umeak eskolara joaten dira orain; ura badugu; eritegia badugu, eta denda kooperatibak ere bai; laster elektra indarrik izango dugu!

Zein zoragarrizkoak berba haiek Hamisiren ezpainetan! Hizkuntza ere bazen zoragarria, eta hiru egun haietan gure lagunek txakurrari *mbwa*, armiarmari *buibui* eta txingurri txikiei *sisimisi* esaten ikasi zuten.

Mendi aldean zebiltzela, goiz batez, laborari bat iritsi zen Patriciorenganaino, eta sinpatia handiarekin hasi zitzaion:

– Kak diela? Jaraxo?

Patricio harrituta zegoen. – Kalodna, niet? Jaraxo!

Gero, hitz berberekin, behin eta berriro.

Patriciok ez zekien bere burua nora sartu, Hamisik gauzak aklaratzera heldu zen artean. Nonbait, laborari haiek kotoia lantzen zuten, eta azkeneko urtetan Uzbekistango espezialista batzu joanak ziren hara, makina batzuren funtzionamendua erakustera. Patricio haietarik bat zelakotan noski!

Eskolak ikusi zituzten, eta abar.

– Sozialismoak –esaten zuen Hamisik– perspektiba zabal bat ireki digu. Arrazistek eta inperialistek itxi nahi digute, baina nola itxiko digute...! Irabazten ari gara... O, bai, irabazten ari gara!

«Horixe!», pentsatzen zuten Luisek eta Patriciok Joxemik itzulitako hitz haiek entzuten zituztela.

– Usiku una giza. Twende zetuni! (*Gau iluna da. Goazen!*)

Hamabiak... Komandoa abiatzeko tenorea...

Joxemi, Hamisi eta Luis urperatu ziren, nork bere lepa gainean hogei kilo plastiko zeramala. Igeritan ordu erdiko bidea zeukaten, objetiboraino. Aise lerratzen ziren ur etsai haietan, suabe baina betarik galdu gabe, eta operazioa amaitzeko haina indarrik izango zutelakoan, hartarako aritu bait ziren, urtebete lehenagotik...

Diego Garcia...

Haren ondoko arkaitzezko irlatxo batetan, Patricio eta Yusuf, lagunen esperoan...

Luze jo zuen joan-etorriak. Itsasuntzira bueltan, atzera kargatu eta –ustez indarrean zeudela– biga–, rren igerialdi bati ekin zioten ixilki.

Objetiboa ez zen amerikarren basean pausatzen ziren ehundaka abioietarik bat, nahiz eta batzuk –BIB zeritzetenak bereziki– ongi merezi zuten. Objetiboa ez zen une hartan irlan deskantsatzen ziren hiru portabioi erraldoietarik bat. Objetiboa ez ziren M-X tipoko misil nuklearrak, amerikarrek «Peacekeeper» deitzen dituztenak, nahiz ondo zekiten non gordetzen ziren eta nola iritsi haietaraino. Objetiboa irlara iritsi berriko Trident-II urpekuntzia zen, berez SLBM misilak jaurtikitzeko prestatua, baina orain deskargaturik zegoena.

Trident-II bere tipoko lehendabizikoa zen eta ohizko Trident-ari garrantziko hobekuntzak aportatzen zizkion, batipat potentziari zegokionean, berarekin amerikarrek sobietarren ICBM puntuak (lurrazpiko siloetan aurkitzen direnak) erabat deuseztea guztiz erraza bait zuten, eta beraz «lehendabiziko kolpea emanik gerra irabaz zitekeela» aldarrikatzen zuten militar atzerakoien iritziek arriskugarrizko pisua har zezaketen Pentagono barruan.

Erdi-erdian ipini zizkioten eztandagailuak. Bi txiki hogei kiloko, aide banatan, eta handi bat la-

rogeikoa, pixka bat atzeraxeago. Handik hogeitamar ordutara leher egingo zuten...

Bigarren itzulian, Luisek eta Hamisik Joxemi karreatu behar izan zuten, donibandarra arras akitu bait zen eta kordagabe gelditu. Untzi gainean etzanik ere, ez zen berehalakoan bere onera etorri. Arnasa nekez hartzen zuen. Gero zentzutu zen, eta aldarrika

– Erretzeari utzi behar zioat!

Gure lagunen birikak emozioaz puztuta zeuden. Yusufek motorra abiatuerazi zuen, eta barkua host metrotako olatuen gainetik furia bat eginda zamalkatzen zen.

Eguna hala iragan zuten, jan, edan, edozein gauza komentatu, optimismoz beterik.

– Kriston beldurra pasa that –esan zuen Joxemik halako batez.

– Nik ere bai... –esan zuen Luisek. tzeari behintzat, ez diogu beldurrik, hori da inportantea.

Arrats hartan, insomnioak zerbait jotako Joxemi izan ezik, denek izan zuten ametsen batzu irudikatzeko parada. Patricio komunidadean zen, eta harritzen zen, beti primeran ibili mendian,

hesteak itzulerazten zizkion ondoez harekin; bazebilen, tipi-tapa etxerakoan, baina xendrak aldegiten zuen, ezin zangorik finkatu lurrean, saiatu arren ezin aurrera zitekeen, eta Rosak deitzen zuen, Patricio!, Patricio!, baina berari mundua buelta eta buelta hasi zitzaion, zurrunbilo batean... Botaka esnatu zen, paisaje izugarri batean... Geroxeago, lasto koloreko, pittin bat hobeto, Joxemiri «non gaude?» galdetu zionean, honek, gaupasak inspiratua, «sortzen ari den egunaren zokoren batetan», erantzun zion, eta hura zein poeta arraiok esana zuen ez zen gogoratu.

Ez gera kabalduko
len zoro begiñan...

Yusuf eta Luis eta Hamisi itzarri eta puska batera, beste inoren baino Patricioren alegrantzarako gehiago, lurra ikusi zuten. Seychelles-ak ziren; han egitekoak: bat, barkua lehertarazi, bi, itxuraz dotoretu, hiru, Victoria-ko aireportuan Keniarako goizeko hegazkinaz abiatu.

* * *

Nairobiko egunkari batetako lehen orrialdean irakurri zuten: «Terrorism strikes in Diego Garcia». Hemeretzi lerro ziren. Urpekuntziak hondoa jo zuen.

Ondorengo bi egunetan ez ziren «New Stanley» hoteletik atera. Zuhurtasunak hala aholkatzen zuen, baina, gainera, bazuten zer aditurik irratian, emisora guztietan eta goizetik arratsera Diego Garciako ekintza erabiltzen bait zuten; ez txukun erabili, gehientsuenetan.

Amerikarren erreakzioaren biolentziak gure lagunen kalkuluak gainditu zituen. Ekintzaren autore materiala nornahi izango zelarik ere (Libia, Iran, palestindarrak, aipatzen zituzten), sobietarren errespontsabilitatea begi bistan zegoen, zioten, zeren beste inongo Estatu edo potentziak ezin bait zezakeen (!) ezagutu Trident-II-aren kokapen esaktoa, ezta bera deusezteko lehergailuak zein toki zehatzetan ipini behar ziren. Profesionalitateaz mintzatu ziren, eta abar. Zeini otu, munduaren guztiz bestaldean, Perun, kasualidade zorigaiztoko batez asasinatu-

tako apaiz batek berarekin batera lurperatu zuela misterioaren giltza? Hori komandokoek beste inork ez jakin...!

Kremlin-etik ez zen gaitzespen komunikaturik atera. TASS agentziak eta Moscow irratiak gertatutakoaren berri laburra ematen zuten, aparteko komentariorik gabe. Areago zena: lortu zuten *Imongo Voavoa* Antananarivo-ko jurnalaren ale batetan (eta Madagaskar-en jarrera bazen hartaz kontutan izatekoa), «Edozein izan zitekeen» izenburu duda-mudazkoa zeraman iritzi artikulu bat kausitu zuten, non Yusufen ustetan ekintzaren ongi estaliriko apologia ere egiten bait zen.

Bigarren gauean azkenik erreibindikapena entzun zuten, lokutore ergel baten ahotik:

«Bakearen aldeko komandoa» deitzen den talde batek Europa, Afrika, Asia eta Ameriketako komunikabide desberdinetara eginiko telefono deietan bere gain hartu du Diego Garciako tipoko urpekuntzi nuklearraren kontrako atentatua. Orain arte ezezagun zen komando honek dioenez, ekintza bere askatasun nazional eta soziala bilatzen duten mundu guztiko herriekiko elkartasun erakuspen bat da, eta aldi berean inperialis-

tentzat abisu bat, aurrerantzean askatu nahi duten herrien arazoetan «muturrik sartu ez dezaten», esaten dute terroristek literalki. Bestalde atentatuak eraginiko kalte materialak lehenbiziko informazio estraofizialek esandako bi mila milioi dolarrak gainditzen omen dituzte; horri buruz Estatu Batuetako kongresoak sorturiko inkesta batzordeak...»

Hotel kosmopolita bateko 127garren gelan barrena irribarre bat hedatu zen...

– Dena lehertarazi behar geniken, dena! esan zuen Luisek, radikal, burko baten gainetik.

Patriciok onesten zuen: «Behin hasiz fiero...»

Hamisiren ustez, desgastezko gerra egin behar zuten, eta balantza ezarian-ezarian beren aidera erakarri...

– Bai, hori ondo zegok –esaten zuen Luisek; segidan ordea, komenientzia estrategiko hari garunean erroak botatzen utzi gabe:– Baina, kasu partikular honetan, dena lehertarazi behar geniken! Dena!

Bere horretatik ez zuen inork aterako.

* * *

Kenia oso zen Tanzaniatik desberdina; kapitalista zen, lujo handia hiriko kaleetan baina bai eskaleak eta txabolak ere. Mendialdean berriz, zurien eta lurjabe handien eskuetan zeuden landa zabal emankorrak ikusten ziren, baina beltzik gehienak lur puxka tikietan aritzen ziren, lanabes primitiboez, eta arront sakabanatuta bizi ziren, herrixka bat hemen, beste bat han.

Hotelean ingles zahar bat ezagutu zuten, Kenian berrogeitamar urte zeramana.

– Koloniaren denboretan –esan zion Joxemiri lehenbiziko egunez, turista frantses bat zelako ustetan– askoz hobeto bizi ginen, bai, baina gaurregun ere ez gara batere gaizki bizi. Nik badut granja bikain bat lautada aldean, eta *business* bat Nairobin. Egunero egiten dut golfean, lagunak ikusten ditut eta *week-end*ean, *safari* egiten dugu. Zeozer gehiago eska al dezake txuri batek, ondo izateko?

Arrazista nazkagarri bat zen. Zerbitzari bategatik esan zuen:

– Tipo argitsua da, beltza bada ere.

Gero Hamisi eta Yusufekin ikusi zuen Joxemi eta ondikoz ez zen horrenbeste nabarmendu.

Hotelaren tabernan orduak uzten zituzten. Irratiak errepikatzen zuen:

Kend Your hands from me...

Afrikarrak eskuzabalak ziren, zeremoniatsuak, lagunkoiak...

– Nik ezagutu dudan momenturik ederrena –esan zuen Yusufek, bazkalondo batean, beroki– Mozambique-ren independentziaren eguna izan zen... Deskubrimendu bat zen, herritar guztiek batera zerbait deskubritzen zuten, beren izana den bezalakoa erakusten zuten, ilusiorik ederrenak, bapateko pozkarioa, askatasuna... Momentu horietan azaleratzen da abertzaletasuna, eta nazio bakoitzak bere neurria ematen du...

Joxemiren kopetatik zimurrek aldegiten zuten. Amets xarmanta zen, independentziarena, nahiz eta, batzutan, hain urruna zirudien...!

Proiektuez hitz egin zuten, neska eder baten pantera begiez, nork bere herriko edari alkoholikoez –Luisi gaia oso atsegin zitzaion– eta, arra-

tsalde kurioso batez, Afrikako herrien errealitate konplikatuaz.

Patriciorentzat eztabada gehienak –eta azken hori hain bereziki– harrigarri suertatzen ziren. «Lan da sinistea –pentsatzen zuen– munduan hainbeste gora-behera gertatzen ahal direlakoa». Diskusioa Afrikatik mundu guztira zabaldu zelarik, burua *lliujlliuj* egiten hasi zitzaion. Argitasunezko hondar aldi batetan, eta hitz egiten zutenek sobietarrak aipatzen zituztela entzunda, eta haiek eta errusiarrak bat zirela uste bait zuen (bakarrik gehiago zekitenek hitz bata erabiltzen zutela eta jende normalak bestea), aspaldian txokoratutako galdera bat egitea gogoratu zitzaion, «eta errusoek zer egiten dute Afrikan?», baina, Luis eta Yusuf bizi-bizi ari zirelarik, ez zuen berehalaxe abagunerik topatu, eta gero aldia iragan zen. Koka hostoño batzu gutxietsi zituen instante hartan, zerengatik esanak esan whiskiak –bereziki orain edaten ari zenak– ez bait zuen kokarekin konparatzeko punturik, eta gainera bihar... bihar entendimentua lotuta zeukala esnatuko zen.

Biharramunean, eguerdi aidera Joxemi buelta bat ematetik itzuli zenean, Hamisik begietan negar zantzuak ikusi zizkion.

– What’s the matter? –galdetu zion.

Lurminak estutzen zuen Joxemi. Giharreak gogortuak zituen.

– Haidhuru, my friend –esan zion Hamisik, eta zigarrilo bat piztuaz ondoan jarri zitzaion-; haidhuru... (*Ez du inportik*)

Hamisik kontatu zion, tikitan, amarekin bakarrik bizi zela, eta hura Tanzaniak independentzia iritsi eta geroxeago gosez hil zitzaiola, eta bera osabaren etxean oso bakarrik sentitzen zela eta negar asko egiten zuela... Joxemik ez zuen dena entenditzen, baina Hamisi goxo mintzatzen zitzaion, eta laguntasun olatu bat inbaditu zuen eta mutil beltz maitagarri hura

–V–

Joxemik, Frantzian asunto zahar bat garbitu beharrez, laster itzultzea erabakita zeukan. Besteekin komentatu zuen. Bigarren ekintzarako Maputo-ko kontaktoa erabiliko zuten.

Halabaina, Europa baino lehenago, ekialde hurbila joko zuen.

– Lagun batek –esan zion Yusufek– Parisa joan behar dik, eta hik lagundu dezakek.

– Bale.

Lagun harek Mehmet Doluk izena zuen, eta Pertsiako golkotik ez biziki aparte bizi zela informatzen zuen papertxo batek.

* * *

Haruntzako barku bidaian, denborak gehiago pisatzen zuen Joxemiren gogoan. Egunak oso goiz hasten ziren eta oso berandu bukatzen.

Bakardade ta oroitze askok
ia burutik nastuta...

Ez zen, hala ere, erdipurdiko une haietan, horren gaizki sentitzen, zeren eta –iruditzen zitzaion, puru baten lainoen azpitik– lehenago ere sentitu bait zen hala moduan, eta, inoiz edo behin, bizikizun zahar haien familiartasun kutsua laket zitzaion.

Kirab-en aurkitu zuen Mehmet. Hogeitamar bat urte, ez altua, azal iluntxoa, ile beltz askoa, sudur galanta, bibote usua, esku txikiak eta txaketa xaretu xamarra.

Mehmet kurdoa zen. Kontsonanteak galtzen hasitako frantses gozoaz hitz egiten zuen.

Joxemiri ondo iruditzen bazitzaion edo eragozpenik ez bazuen, gau hartan bertan abiatuko ziren, Turkiarantza, non berak muga negozio bat xuxendu behar zuen. Astebete eramango zion horrek, eta Joxemik muga pasatu eta bere amonaren herrian egotea zeukan, nahi baldin bazuen.

Baina Joxemiri –mapa bati begira– bestelako proiektua bururatu zitzaion; hura egin eta gero Erzurum-en elkartuko ziren, halako egunez, halako lekuan.

Gerora elkarri kontu batzu esan zizkioten, Joxemik Euskal Herrikoak, Mehmetek Kurdistangoak –herri handia bezain txikitua eta umilerazia, puxkatua, erreprimitua, debekatua.

Mehmetek poesiak egiten zituen; gizon fina zen, zerbait berekoia; bederatzi urte zituela, bere aitak, nekazari pobrea, Irak-eko diktaduraren aurka pesmerga izan bait zen, zeukan behi bakarra saldu omen zuen, ametrailadora bat erosteko.

Jendez gainezkako autobus txatar batek asfaltozko bide luze bakarraren kilometroak banan-banan jaten zituen. Gaua zen, inork ez zuen berbarik egiten, motorraren hotsak zorigaiztoko ametsak bideratzen zituen. Kanpora, Joxemik mugagabeko basoak eta lur propietate handiak ikuskatzen zituen. Zeharkatzen zituzten herrietan, miseriak min ematen zuen.

Urmian-go etxe triste batetan berezi ziren. Mehmet mugalaria zen, eta bere komandoak egun haietan Iran-Irak arteko gerra zela eta soldadu kurdo batzuk eskuratutako armak Turkiako Kurdistanen aritzen ziren gerrilariei pasatu behar zizkien.

Joxemik, kontrabandista armenio baten laguntzarekin, Georgia jo zuen. Tbilis-eko hiri erdiko bere etxean Surab-ek beso zabalik hartu zuen. Jatorrizko euskalduna zirudien.

– Joxemi! Hi hemendik! Hauxe sorpresa!

Etxe polita zuen Surabek, detaile askorekin. Baso bana ardo zerbitzatu ondoren, galdetu zuen:

– Zer, zertan dabiltza gure mendebaldeko anaiak?

– Mendebaldeko anaiak –esan zuen Joxemik– de puta pena zebiltzek.

– Gaizki? –galdetu zuen Surabek, menturaz hala ere zenbait esabidetara ez arront egina.

– Bai. Oso gaizki –egun hartako Joxemiren hitzek samina zerioten–. Ez zekiat altxatu behar dugun edo... –Euskadiko egoera pintatu zion: errepresioa, langabezia, ilusiorik eza, alkoholismoa, komunikabide inplakableak, euskararen galtzea...

– Faktore bat ahaztu zaik –esan zuen Surabek Joxemik bukatutakoan.

– Ez, ez zaidak ahaztu –esan zuen Joxemik-; bazekiat borroka badagoena, baina batzutan

ematen dik ofentsiba horri buru egiteko gutxi ari garen...

– Asko hobeto gutxi baino, dena dela herria horretan ari baldin bada, gerra irabaziko duzue.

– Herria? –esan zuen Joxemik, eta hotzikara batek iñarrosi zuen.

Gau hartan, Mongoliako *txielobiek* tiki bat ezagutu zuen. Turista bat zen, irritsua, oso irritsua, harekin orduak pasa eta gero ezin bait zitekeen imajinatu irririk gabe.

– Gure herriak –esaten zuen, hitz batez, bi keinuz eta papertxo bateko hamalau zirriborrez– ez daki zer den kapitalismoa. Guk salto eman genuen, feudalismotik sozialismora... Eta gehiago dena, mendialdean oraindik bizi diren ale nomada horiek komunismo primitibotik geroko komunismora salto emango dute, menturaz.

Gero izozkin bat jatera gonbidatu zuen Joxemi, eta honek, zer esan ez bait zekien, berak ta-ta-ta aritzen zirela adierazi zion, kapitalismoaren kontra seguru, kapitalismoa defendatzen zuten txakurren kontra, orduan mongoliarrak buruarekin onespenezko keinuak egiten zituen, *kaniex-*

na, kaniexna (*noski, noski*) esanez, beti irribarrez.

Biharramunean berriz, Surabek eraman zuen festa batetan –eta bere arropa batzu utzi zizkion georgiarrak, dotore joan zedin, ez bait zen gisa bestela–, Joxemik neska udmurtiar bat ezagutu zuen, eta gustora aritu zitzaion, eleka, dantza jauzika, eta batez ere begi grazia batzu eginez. Neskari gustatu nonbait Joxemiren graziak, eta hantxe hasi zen erromantze bat hain laburra nola apasionatua. Neskak musu delikatuak ematen zituen, eta hain suabe kantatzen zuen, ze Joxemi ez bait zen mundu honetako sentitzen.

Xundi puksiz oi tabierie
uz juja ni tzuknatek
(Eguzkia sortu da / ez da berriz sortuko)

Erzurumerako bide gehiena automobilez egin zuen Joxemik. Kafetegi batetan ikusi zuen Mehmet. Urduri zegoen hau. Nonbait, muga pasatzen ari zirela, Irak-eko patruila batekin topatu ziren eta, nahiz eta bi gutxienez akabatu eta gainerakoak uxatu zituzten, soldaduek ere hil zuten

beraietako bat, eta handik aurrera lasterka ibili ziren, armak zulo batetan utziz, berak baino seguruago behintzat, zeren handik aurrera nahiko nahigabe eta ezbehar suertatu zitzaien.

Hustu hala betetzen ziren te baso banarekin iragan zuten arratsaldea. Joxemik aspaldian ikusi zuen eta orain ez jakin zergatik gogoratu zitzaion pelikula desastre bat kontatu zion Mehmeti, eta honek letutako azkeneko nobelaz kontratakatu zuen. Bukaera politeko nobela, hura: hiltzen omen zen protagonista, eta bere lagunak, oso pobreak izanik bere etxean bizi bait ziren, ba, etxea kasualidade majiko batez sukartzen zelarik, haiek, sua amatatu gabe, protagonista hilda beren arteko lokarria hautsi bait zen, han uzten zuten dena erre zedin. *Tortilla Flat* izeneko nobela, amerikano batek izkiribatua.

Joxemi ez zen halako kontuekin laketzen, bestalde gai hartan zeresanik oso gutxi zuen, bizitza guztian banaka irakurri bait zituen liburuak, hasi eta bukatu.

Egun hartako gaua monografikoa izan zuen, Euskal Herria eta hango neska amoltsu mikatz bat... Ordutik ordura, hartutako te guztiarekin

gogoratzen zen eta zerua eta infernua madarikatzen zituen.

Antigualeko kotxe batetan zeharkatu zituzten Zazas-eko mendiak. Ardiak eta ahuntzak alper zebiltzen, eta aitzinagoko bailaretan, erremolatxa, kotoia eta tabakoa hazten ziren azkarki. Soldadutan ere ez zegoen oso gutxi, Diyarbekir inguruan batipat. Behi saltzaile mozkor batek kontatu zienez –kurmancîz mintzo zen, Mehmeten dialektoaz–, bakea bukatu zen han, bai, ez zegoen gehiago bakerik, zeren bere herrian –herri koxkor bat, malda legun batetansoldaduek jendea kulatazoka erabili zuten, eta zaharrei eskuak bizarrarekin lotu zizkieten, eta haietako batek –itsua, gizarajoa, harek zer egin zuen– hots egiten zuen: «*Tu ne hat...! Min tu ne dît...! Ez tu nizanim...!*» (*Inor ez da etorri! Ez dut inor ikusi! Ez dakit ezer!*), eta soldaduek barre egiten zuten dibertiturik...

Noizpait-noizpait, Sirian barrena, eta zeramaten paperketari esker kontrol guztiak iragaten zituztela, Libanora heldu ziren. Palestindarren kanpamentu batetan ikusi zuen pintada hau

ondo grabatuta gelditu zitzaion Joxemiri: *Jadanik ez gara esklabu, borrokan egiten bait dugu.*

Beirutetik Parisa eramango zituen abioi batek suerte Diska batekin.

BIGARREN PARTEA

–I–

Joxemi, muga pasatu eta hamabost egun beranduago, Oiartzungo gau kontrol batetan atxilotu zuten.

Iparraldean gelditua zen Mehmetek, berri txarra jakin zuelarik, Aezkoan barrena muga pasatu zuen.

Lehendabizi Joxemiren familiarengana jo zuen. Ama zaharra zuen Joxemik, adeitsua, gozotasunez betea. Aita ez zen etxean egoten, kartetan baizik, soziedaderen batetan, eta Mehmetek ikusi zuen egun bakarrean, indibiduo beltxaran hura bere semearen lagun bat zela jakinda, piska batean begiratu zuen eta «ba! ba!» besterik ez zuen esan, zeinarekin esan nahi zezakeen: «Bai lagun estrainoak ditu nire semeak! Ez dut ezer entenditzen!».

Amak eta Joxemiren bihotz oneko lehengusina ba-tek komisaldegian sutondoan baino ordu gehiago igaro zituzten arren, ez zuten poliziarengandik Joxemi ikusterik lortu, ezta eraman zizkioten arropak eta janak pasatzerik ere, zeren

hartu bai, egin zizkieten pakete guztiak, baina gero jakin zutenez batto ere ez zioten helarazi mutilari, denak noski mertzenario haiek berek gorde eta jan bait zituzten.

Bederatzigarrenean kartzelara eraman zuten. Mehmet –tartean Lezoko lagun baten etxean bizi zenaizan zen lehenengo bisitatzaileetako bat. Atariko txakurrek, arabea edo ijitoa zelakoan, erdeinuz eta beldurrez begiratzen zioten.

Joxemi sano zegoen, komisaldegian hil ez beste guztiak egin bazizkioten ere (seinalerik begi-bistakoenak eskumuturretan zeuzkan), edo horrexegatik, orain, hitz eta keinuetatik, lasaitasun izugarria zerion. Ahotsak krak egin zion agur esateko momentuan: zutik, bi lagunak, bi zentimetrotako kristal infinitoaren kontra esku bana jarrita, non Mehmeti iruditu zitzaion bere lagunaren begiak kariñoz bustitzen zirela: uste bait zuen Joxemik azken aldikoz zekusala Kurdistango adiskidea.

Kartzelaren atea kale aidera zeharkatzen zuelarik, Mehmetek, bere aldetik, Joxemi ba-

rruan utzita ez zuela Euskal Herritik aldegingo, zin eginda zeukan.

Korreosen Dar-es-Salaam-i buruz telegrama hau igorri zuen: «Oxira te a xêrê be» (*Bidaia ona izan*). Yusufek ulertuko zuen. Gero hiri bazterretan buelta bat ematera joan zen eta, nekatu zelarik, banku batetan jarri zen.

Andre txolin bat, txakur flako batekin. Gizon dorpe bat, ideia fijo alu batekin. Mutil presatu batzu, lan enkargutan. Zaharrak, gora begira, behera begira, nora begira ez zekitela. Lepoa okertu gabeko emakume sendoak, begi triste samarrekin. Eskolatik ospa egindako ume zapatahautsi pare bat. Neskaren batek lotsa polit piska batekin begiratzen zion, eta bai zuzenago ere, bakarren batek, baina beste askok, urrutitik antzematen zuten Mehmeten begirada eta bere paretik harrosko pasatzen ziren. Zenbaitek garbi begiratzen zuten, gehienek ordea urduritasun diztira ez-atsegin bat isladatzen zuten, eta honek, eta egunaren grisak, minutuen pasatzearekin Mehmeten animoa goibeldu zuten. Jende askorik, jende gehiegirik ez zen, baina zirenak

ere, zertarako ziren, berarekin lagun ez baldin baziren?

Hala, langar xehe-xehe bat hasi zuelarik, «negarra ari dik» bururatu zitzaion, eta instante batzu pasatu ziren burutapenaren ederraz konturatu bitartean –ordurako entzuten zituen hitzetatik erdarazkoak eta euskarazkoak bereizten hasia zen, eta bietakoetatik aletxo batzu bazekien esaten.

Arratsalde hartan Lezoko pisuan gizon zahar batek bere pentsamendu geroz eta lainotsuagoetatik apartatu zuen. Zeferino, Txefe, arrantzale izan zen, baina urte batzu lehenago hanka gainera erori zitzaion tonelada egurrak bizitza guztirako errena lagatu zuen. Orduan nobelak irakurtzeari lotu zitzaion, halako zaletasunez, ze orain fondo gabeko gau batez abentura-adar askorekiko nobela mardul eta borobil horietako bat oso-osorik liseritzeko gauza bait zen. Lehengo urtean, estilo piska bat asimilatu zuela iruditu zitzaiolarik, telebistaren kontrako irudimenez beteriko esku gutun bat bidali zuen probintzi egunkari batetara, eta txukun argitaratu zioten, letra txiki batekin. Beste bi bidali zituen ordudanik,

bide triste bateko batxe batzuren gora-beherez bata eta kontrabandoaren inguruan bestea, eta hauek barne orrialde izkutuago batetan argitaratu zizkioten. Kontrabandoarena zen bere gai faboritoa, eta nola ez munduaren txoko misteriotsu batetik etorritako poeta beltzaran harekin gogotik erabili zuen.

– Terrenoa ezagutuz gero, lan erraza da. Nik arrisku handi bat ikusi izan dut beti: salatariak. Horiek garbituz gero, lan erraza da. Ez naute, ni, bada, behin ere harrapatu ixil lan horietan! Ba al dakizu lehenbiziko telebisioak zeinen barkuan sartu ziren hona? Hombre! Hemos sido unos piratas del copón, nosotros –piratak liburuetatik eskapatzen ziren, eta erdarak konkistatutako itsas-bazterretan bizitzen ziren.

Elkarrizketa gustagarria izan zen Mehmetentzat. Julia ere bazegoen, nortasun fuerteko etxekoandre edadetua, eta Maite, bisitan joandako horren lagun gaztexeago eta moderatuagoa, hitz gehienak besteen esanak borobiltzen erabiltzen zituena.

– Pirata, zu? –eta Juliak gizon zaharrari ondo ezagutzen zuen legez begiratzen zion-; lehorrean bai, izandu zara pirata bizkorra...

Txefe, apurtxo bat inkorporatuz eta hatz oker batez silaba bakoitza azpimarratzen zuela, bertsotan defenditu zen:

– Suerte txarrekuak il diran gaztiak, batzuk legorrian eta urian bestiak.

Gero atzera eroso jarri zen eta Mehmeti begiratuz erantsi zuen:

– Piratetan, ez naiz handienetakoa, ni!

– Zu baino handiagorik, gutxi! –Juliak, umore keinu batez, bereari eutsi zion, Mehmet poliki inpresionatu zuena. Baina berari mintzo zitzaion Zeferino:

– Reagan eta, zer dabiltza hor, ba?

– Reagan? –esan zuen Mehmetek– Jo...!

– Hori bai benetako pirata! –esklamatu zuen Txefek.

– Pirata? –esan zuen Juliak–. Terrorista peligrosoa duk hori! Eta hor ateratzen digute, bentizinko baino majoagoa, bitatik hirutan, telebistaz, eta ondoren, aufa terroristak hemendik, aufa terroristak handik, jende inozentea izutuaraziz. Eta

besteak, horra, lasai, telebistaren barruan, beti telebistaren barruan, hori bait da txarrena, zeren bertatik bertara ikusiz gero, qué sé yo!, sikiera hartu plantxa eta...

– Telebisioa! Hor dago gaitza! –esan zuen, arratsaldean hirugarren aldiz, Zeferinok.

– Eguerdikoa aditu duzue? –esan zuen Maitek, eta besteen ezezkoaren segidan koloreak igo zitzaizkion aurpegiraino, baina indarrak bilduz kontatu zien:– Atzo amerikanoek ez dakit zein irla okupatu omen zutela Karibe partean; bertako batzu hil zituztela eta, han gelditu direla...

– Bakearen alde! –esan zuen Juliak, begi-besoak espresiboki zabalduz.

– Hori izango da beste horretan, Diego Garcian, egin zietenaren ordainez –pentsatu zuen, denek aditzeko moduan, Zeferinok.

– Bai, hori esan zuten –esan zuen Maitek.

Mehmetek ez zeukan horren berririk. Bai, lojikoa zen, amerikarren erantzuna, eta gerora besterik ere egingo zuten seguru asko, Trident-II.aren kolpea ez bait zen, alajaina, enkajatzen erraza. Ondo neurtu ote zituzten ekintzaren on-

dorioak? Mehmetek, amerikarren erantzuna eta guzti, baietz uste zuen, zeren erantzun harek, mundua zegoenean zegoela, oso mugatua beharko zuen, eta bestea abisu moduan ustez elegante atera zitzaien... Nolanahi ere, handik aurrerako solasaren haria erabat galdu zuen, eta lehendabizi Txefe «pirata» eta gero Maite joan zirelarik, mekanikoki agurtu zituen eta, Juliaren konpainian goxo afaldu ondoren, ohera sartu zen komiki kilikigarri batekin.

Lehenbailehen egin nahi zion Joxemiri bisita, baina kartzelako arauek lau egunez eduki zuten hara sartu ezinik. Boskarrenean, goizeko hamaikak laurden gutxitan, Joxemi, lokutorio zikinean nor etorriko zai, Mehmet ikusita txit harritu zen. Zer egiten zuen...? Hala ere ez zion deusik galdetu, kurdoaren begietan dezisioaren diztira nabaritu zuelako. Aurreneko minutuak zer habilka eta hementxeka igaro zituzten, gero Mehmetek solasa pixka bat zentratu zuen.

– Zer moduzko mobilidadea duk hor? –galdetu zion euskaraz.

– Zera...! Txarra...! Zeldatik patiora eta patiotik zeldara erabiltzen gaitzitek.

– Preso asko zarete?

– Gure modulo horretan, berrogeiren bat izango gaituk.

– Eta, zer moduzko azpiak alde horretan? –galdetu zion Mehmetek, inglesez baina.

– Oraindik ez dizkiat ezagutzen.

– Ba pixka bat begiratu itzak –esan zuen Mehmetek, inglesetik frantsesera salto bat eginda.

– Hori egina zegok –Joxemik.

– Nik zer-edo-zer egingo diat hemengo inguruetan –Mehmetek kurdoz esan zuena, Joxemik esku-begietan irakurri zion, eta «tira, ba» erantzun zuen. Euskarazko ikastaro intentsibo bat amaitu berriko funtzionarioak bere kabinatik etsita begiratzen zien.

Irtendakoan Mehmetek handik puxka baterako taberna batetan zerbezatxo bat edan zuen, eta kasualki bazterrak ikusi zituen. «Se traspasa» titulodun bajo kaxkar batek atentzioa deitu zion. Biharramunean barnetik ikusi eta alkilatu zuen. Nagusiak moro batek galerazi lezakeen txukuntasuna baino dirua gehiago maite zuen, eta Mehmet bere kondizioetan ados agertzen bait zen, tratua itxitzat eman zuen, inkilinoak,

burutik pasatu zitzaion bezala, lokala droga trafikorako erabili nahi baldin bazuen ere.

Bere bigarren lan bisitan Mehmetek Joxemiren abokatua ezagutu zuen. Luismak burua ongi klasifikatutako datuez beterik zeukan, eta arineketan zebilen, haren mugitu beharra. Hirugarrenean, bi preso ateratzeko zirela eta, Luismaz gain jende pilo bat aurkitu zuen kartzelaren atarian. Eguerdian irten ziren mutilak, irribarrez, despistaturik, burdinez eta zementoz estaliak lau urte, eta gehiago, bete zutelako. Luismak, berekin bazkaltzeko, esan zion Mehmeti, eta Mehmetek baietz, eta istilu ederra izan zuten, bazkalostean batipat, postreak eta gero. Joxi deitzen zen preso izandakoak burutik ikutua ematen zuen, denei eta denari baiezka aritzen bait zen, lagunak ezagutu gabe, erdi tetelduxea. Besteak, Puertas esaten ziotenak, bereak eta bienak botatzen zituen zalaparta handiarekin, edan eta edan, andregaiak gehiago edaterik galerazi zion arte.

– Bi horiek –esan zion Luismak Mehmeti, lepoz lepo gainezartzen zitzaiolarik– zortzi hilabete pasa dituzte zigor zeldetan, inor ikusi gabe.

Jo egin diete, txarki! Kontuz ere bai, gero, funtzionarioek bait dakite, jakin, zera, gero... Baina, hori ere, tto...

Arratsean Mehmet Puertas eta Joxiren artean suertatu zen instante batez. Joxik esaten zuen:

– Hau anitz kanbiatu duk, sobera –eta haren begi larriek ez zuten kokagunerik topatzen.

– Zer erraten duk, Joxi, zer erraten duk –eta Puertasek laguna besarkatzen zuen negar egiterainoko kariñoz–, hau gurea duk eta, hau betikoa duk eta...

Gaupasa itzela egin zuten, Mehmetentzat hunkigarria. Goizean autobusa hartuta Lezoratu zelarik, burua karga eginda zebilen. Esnatutakoan, gogo gutxiz, gaizki antzera aurkitu zen –ez ezergatik konkretuan, pentsatu zuen: batzutan hala behar dik. Lasai zeukan gorputza, begirada, eta inondik inorako paseo bat ematera irten zen etxetik. Lehendik ere ezaguna zuen eztitasun horretatik nesken begiratuek bakarrik aterarazten zuten, zeren neska gehienek gizonezkoen indiferentzia samurra arras maite bait dute, eta Mehmet haien indarrezko begiraden eraginez apur bat beldurtzen zen, neska haiek, lotsa ga-

beturik, intimidadearen txokorik kuttunenetan sartuko balitzaizkio bezalaxe.

Asuntoari buelta batzu emanda zegoen baina, ordurarte ez zuen gauza segururik usaindu, orain aldiz, Juliak Donostiako aurrezki kutxa batetan behin baino gehiagotan, hamaikak aidera edo beranduxeago igual, maletin marroia eta maletinaren barruan zientoka bileteak zeramatzan indibiduo kankailu ongi jantzi bat ikusi zuela komentatu zuen, eta Mehmetek informazioaren detaile guztiak leku gorde batetan ipini zituen.

Segituan ezagutu zuen, bai haren ondoan operazio itxura batzu egin ere, nahikorik ote zeraman. Baietz jo zion, eta hara, hain zuzen, bestalde harrigarrikiro, egunero azaltzen bait zen, eta azaltzeari utzi ziezaion baino lehen, Mehmetek ekintza txiki bat paratu zuen.

Goizerdi lanbrotsu batez aurrezki kutxatik irtendako kankailuari makilakada batez konortea kendu zion aldi baterako, eta maletina tinko eskuratuz korrika atera zen doblefilan motorra pizturik aparkatuta utzi zuen kotxeraino; handik pasatzen zen goiz txaranga txundigarri batek ihesa erraztu zion.

Hurrengo goizean «quinqui» batek banka gizon bati maletina «lapurtu» ziola irakurri zuenean, Juliari intuizio moduko ideia bat bururatu zitzaion, baina parean zeukan Mehmeti ez zion deusik komentatu, aldiz momentu hartantxe exerita zegoen siloiak bost kilo baino gehiago pisatzen zuen.

–II–

Johanesburg, 23. (Agentziak). Namibiatik heldu diren berrien arabera identifikatu gabeko bi hegazkinek atake bat burutu zuten atzo arratsaldez Hegoafrikako armadak Grootfontein-en daukan apoio basearen kontra. Prezedenterik ez duen atake honetan hogeitamarren bat soldadu eta ofizial hilik suertatu zen eta koartel jenerala errauts eginda gelditu zen. Hegoafrikako iturri ez-ofizial batek bizirik dagoela ziurtatu duen arren, anbiente periodistikoetan Muassua komandantearen heriotzarekin espekulatzen da. Muassua komandantea bere eskuz buruturiko zibil batzuren hilketa zela bide prentsaratu zen pasa den urte amaieran.

Azken urteotan Angolak eta Namibiako SWAPOk behin eta berriro salatu dute Grootfonteingo basea, lehenak Hegoafrikako gobernuaren eta UNITA erakunde kontraiaultzailearen topaleku zelakoan, bigarrenak berriz arrazistek Namibiako herriaren kontrako iharduna bertatik zuzentzen omen zutelako.

Pierre Botha Hegoafrikako lehen ministroak Angola akusatu du bete-betean eta «ekintza terrorista honi» erantzuten jakingo dutela, adierazi du; Luandako agintariek, aldiz, berehala operazio horretan zer ikusirik ez dutela izan, jakinerazi dute. Zauritutako batek deklaratu duenez, hegazkinak Frantziako mirageak ziren dudarik gabe, baina inongo banderarik ez ikurrik ez zeramaten; zenbaitek detaile hau atakatzaileak gerrilariak izan direlako seinale ebidentetzat interpretatu du. Irrati kate batek, bere aldetik, hegazkinak Zambiatik abiatuak zirela baieztatu du, baina inork ez du puntu honetaz xehetasun gehiagorik eman nahi izan.

Mehmetek berri hori irakurri eta hiru egun geroago, Forondako aireportura euskaraz mintzatzen ziren bi yugoeslavo iritsi ziren. Maño astazakil batek gidatutako taxi batek Arrasateko plazaraino eraman zituen. Bertan, arrasatear plazazale batek haietako bat ezagutu zuen:

– Luis!

Luisek eta Patriciok egun t'erdi bat egin zuten Deba Garaian, egoera orokorraz eta zenbait egoera partikularrez piska bat jabetzeko asmotan. Gero Donostira iritsi ziren, autobusez, eta handik, kontuz, Trintxerpera.

– Azkenik herrian –esan zuen Luisek, harroki.

Etxerantzakoan, urrundik, Luisek balkoian Glori ikusi zuen, eta inoiz baino ederragoa iruditurik, min txiki batek heldu zion instante batez, bera gabe neska zoriontsu izan zitekeelako ideiak atsekabeturik; segituan baina, emozioak bihotza konkistatu zion, eta Glorik bera ikusi zuenean, bien begiek dizdiz egin zuten, eta neska balkoitik desagertu zen, eta Patricio bakarrik gelditu zen kalean.

– Viñeche, é! –esan zion aurrena Glorik bere gizonari.

– E ti non te fuche, é! –Luisek bere andereari; eta besarkada hartatik hezur oharturen bat krak kejatu zen.

Elkarren usaiez bete ondoren, bestearen berri zeinek azkarrago jakingo hasi ziren, eta Patricio, besodun sila batetan akomodatuerazia, galde-erantzun joan-etorri haietako bidea behin

eta berriro galdu zuen. Glori emakume bizkorra zen, eta nobiorik gabeko aldi luze hartan, lana zela bestea zela, ez omen zen geldi-geldirik egon. Txakurrak ere ez, horratik, eta bi aldiz agertu ziren etxera, Luisen bila. Bata, Joxemi eta biak itsasoz joandakoan –errejistro azal bat egin zuten orduan, eta etxetik aldegin baino lehen Glori txarrenarekin mehatxatu zuten–, eta bestea, Joxemi detenitutakoan. Bestela etxe inguruan susmagarrizko mugimenduak nabaritu zituen, baina berak ez ikusiarena egiten zuen, hala ere Luisek eta Patriciok begiak sudurraz haratago ipinita hobeto ibiliko ziren. Joxemi berriz moralez ongi zegoela ematen zuen, honek eta harek bisita egiten zioten; «bestaldeko arabe bat» ere joaten omen zitzaion, Glorik ez zekien nondik irtena.

«Hori izango duk», pentsatu zuen Luisek, Mehmeten berri bait zeukan baina ez zuen noski ezagutzen, eta konfirmatu nahian Patriciori begiratu zion, baina honek, gailegoz nekez entenditzen bait zuen, begiak lanparatik zintzilik zeuzkan, eta gogoa silatik fuera txirristatu zitzaion.

Banderila goxoz beterikako taberna batetan kurdoarekin kontaktoa hartu zuten. Mehmetek Joxemirena zertan zegoen, kontatu zien, eta harek zegoen lekutik hanka egin zezan, zerbaiten pentsatzen nola hasia zen. Patriciok, hartara jarriko zirela, bai, esan zuen, dudatu gabe.

– Horrek atera behar dik –esan zuen Luisek, lehenago ere horretan pentsatzen arizana–. Baina, aurren-aurrena, guretzako toki segurua bilatu behar diagu, Patricio ilegal zebilek eta, neu ere ez niabilek oso legezko, txakurren ustetan.

Mehmetek, hurrengo ikustaldian (funtzionariek etxekotzat hartzen zuten jadanik, *hola* eta *qué tal*), hitz bat hemendik beste bat handik, bi lagunak ailegatu ziren berria eman zion Joxemiri, eta zer-nola zeuden. Orduan Joxemiren kopeta erraiñu eder batez argitu zen, eta Mehmeti bere osaba bitxi bat lokalizatzeko izkutuzko bideak erakutsi zizkion.

– Ai, Joxemi, Joxemi –alegratu zen zaharra hiru indibiduo zein baino zein estrainoago haiek ilobaren partez zetozela jakin zuenean–. Bane-

kien bai, etorriko zela. Izan ere, sartzen da saltsa bakoitzean...!

Sobera egunetan inorekin hizketatu ez denaren antza, fraseak gehiegizko parreez ebakitzen zituen. Gero haien eskariz giltza handi bat eman zien, eta harek irekitzen zuen ateraino iristeko zein bideetatik joan beharra zuten, xehetu zien. Zaharraren bakardadezko parreek Mehmet biziki harritu zuten, baina handik joandakoan Luisek «hori duk tipo eroa!» bota zuen, eta Mehmet konturatu zen, bere baitan ere, komentario arin hura bere sakoneko inpresioari nagusitzen zitzaiola.

Baserriak «Ilinti» izena zuen. Ondo handia zen, baina mendeetan zehar etxeratutako trasteek eta traste horien gainean pilatutako hauts usain hezeak bertara sartzea galerazten zuten.

– Hau astindu beharra zegok! –esan zuen Mehmetek.

Esan eta izan. Izerdiz anpatutako astebeteren buruan Ilintik beste bat ematen zuen. Ganbaran alojatu nahi ez zuten katxarrorik txarrenak suak erabili zituen, eta goian bi logela txiki eta behean sukalde aski txukuna gelditu ziren.

Goiz batetan errekan beherako haritzetatik gora sortzen zen ke moltso bati buruz jo zuten Luisek eta Mehmetek, hango baserritarrekin esne tratua egingo ote zuten. Atxarrin, hala bait zuen izena etxeak, Paulina eta Gregorio, Bixko ez-izenez, bizi ziren bakarrik. Seme bat izan omen zuten anormala, instituzio benefiko horietako batek gazterik hartua, eta ondotik sabel miriku bat aritu omen zitzaion Paulinari, eta geroztik jabetu ziren mundura ume gehiagorik ezin ekarriko zutela. Orain hirurogeitarnarretan sartuta zeuden, eta zimeldutako errapedun hiru behi argal gobernatzen zituzten. Joanez gero, esnea emango zieten, hala ere, egunerokoa.

Paulina, emakume adeitsua, etxeko zapatilak ziri-zara erabiltzen zituen, geldirik egoteko betarik hartu gabe. Hurrengo zeregina garaiz bururatzen ez zitzaiolarik, momentu batez eskuak juntatzen zituen, eta bisitalariei so gelditzen zitzaien, penaz, kariñoz eta jakin-nahiaz.

Bixkok, bista baino, mingaina zeukan bastante azkarragoa, hala galderetako (baina Luisek, axeri, bazekien zaharraren gustoko gezurrak

esaten) nola, denbora pittin bat pasa eta gero, bere kontakizun propioetarako:

– Hemen, zer? Mando lana, hemen. Dena bizkarka ibili behar. Lanbide txarra, hau. Zer nahi duk, ba? Negozio gogorra, hau.

Beste batetan bere bizitza pintatu zion Luisi –Luis joaten bait zen, gehientsuenetan, esneketari.

– Gaztetan morroi egon ninduan, Gernikako Troskan, hamabost urtez. Gero pentsatu nian: Gregorio: hau ez duk gizona bizitzeko modua. Hortaz aldegin nian. Basoan ibili ninduan, dezente, trontzalari, txondorrak egiten, ikatza. Basoan honen anaiarekin ibili ninduan. Badakik, festa bat zela eta, gero, goizaldera, harek etxera ekarri nindian. Bertan ezagutu nian, Paulina. Beste festa bat hemen, beste bat han, zirri bat hemen, zirri bat han, gero, pues, altareraino...

Ilintin Mehmet, Patricio eta Luis armonian konpontzen ziren. Patricio dozenaka urtetan lantzen ez zen baratzari maitasunez atxiki zitzaion, egunero denbora puxka polit bat horretan emanez. Goiz batez buelta bat ematera zihoala esanda Ilintitik atera zen, eta ilunbistan itzuli zelarik

bi poltsa patata eta porru haziekin mukuru beteak ekarri zituen, ibilian ibilian herriko feriaraino ailegatu zela eta. Jatekoak ere, besteek baino ardura gehiagoz paratzen zituen, Luisen liseritze aparatuak beti atseginez onartzen ez zuena.

– *Shushta*! –erantzuten zuen Patriciok–, eta nik zer uste, *waynatxu*? Menditik jeitsita ez dut *chinallama*rik ikusi, *supay*!

Haserretzen zenean, ahoa herri hitzez betetzen zitzaion, baina gutxitan haserretzen zen, eta aldiz malenkonia aldi gogorrak izaten zituen, gauza bata eta bestea, Luisen usterako, lagunei barne-barneko sentimendurik inoiz gutxitan komunikatzearen ondorioak.

Mehmet urduriagoa zen, haren pil-pilak inguruan zituenak dantzarazten zituen. Halako batetan mailu bat fortunatu zitzaion eta, iltze andana bat eskuratuz, egur zaharrak eta berriak bata bestearekin josten hasi zen. Hasi bazen hasi zen: etxea behaztopatzeko aukeraz bete zuen. Ez zen edozein museotan ikusiko harek asmatu bezalako mueble orijinalik.

– Ez duk gutxi alegratu behar Joxemi –esaten zuen–, hau ikusten duenean!

Gauari berriz, geroz eta minutu gehiago lapurtzen zion, bere paperetan, poesia bakoitzarekin, osasun ttantta bat lagatzen zuelarik.

– Odola uzten ari haiz hoja txuri horietan –esan zion behin ohetik sukaldera ura edatera jeikitako Luisek.

– Odol txarra uzten ari nauk –erantzun zion euskararekin txit harritzeko progresoak egindako Mehmetek.

Gau hartan hari nahasizko solas batetan enroilatu ziren. Pattar botila batek argitutako gauak egunari pasatzeko keinua egiten hasten ziolarik, sukaldera aitzur batez armatua ageritako Patriciok bere bi lagunak begiak zabal-zabalikako ametsetan topatu zituen. Aitzurra utzi zuen, eseri zen, eta kanpoko porru-patatak egun beteko bakean utzi zituen.

Biharamunean Mehmet eta biak oso eszenario diferente batetan ziren, kurdoak denbora puxka bat lehenago alkilatutako bajo kaxkar batetan.

Etxazpiak tinko zeudela konprobatu ondoren, goitik behera ekin zioten, lurra zulatu hala zaku-

txotan atereaz. Luisek lortu beharko zituen hango lurpeko planoak.

Luisek kotxe zahar bat erosi zuen, plazer zuelarik goiti beheiti ibiltzeko. Glorirekin ere egon nahi zuen, *carallo*, etorriz geroztiko dinamikarekin askotan ezin zuena.

Trintxerpera jeitsi zen iluntze batetan, hots!, Gloririk ez etxean. Orduak joan orduak etorri eta logelako erlojua, ez zen ba gelditzen. «Mekaguen... Zer dabil ba? –xomorro gaizto bat barruratu zitzaion– Non dabil? Glori... Esaten nuen bai, etorriz gero zerbait bazeukala... Baina hau... Ez esatea ere, ez abisatzea sikiera... Eta ni hemen... Gauzak argi jarriko dizkiagu, bai, etorritakoan».

Goizerdirako etorri zen Glori. «Treboada», pentsatu zuen segituan. Luis, isilik. «Qué, festa?», luzatu zion neskak. «Ti, sí, festa», bota zuen Luisek, seko. Baina tonoarekin aski zeukan Glorik kontraatakatzeko. Zer zen, gero, hura? Lagun batzuren etxean gau batez gelditu zelako aurpegi txarrik ikusi behar al zuen? Zenbat gau pasatu zuen berak etxe hartan, bertan, bakarbakarrik? –«Zenbat?», pentsatu zuen Luisek–. Eta ondo, pasatu zituen, eta orain ere ondo, hala

behar zuen eta, inork ez zion Luisi eskatzen gauero etorri zedin, hori falta zen, lehenbizi lehenbizikoa, baina meeesedez...

Luisek belarriak apaldu zituen. Eguerdian egin zuen poteo galbidetsu batez –bere buruari egoera hartan poteatzea, herrian batez ere, debekatu zionatzera berrindartu zen, bazkalondoan lokuluxka baten aitzakiko ariketa bidez Glorik konprobatu zuena. Luisen morala erraz hondoratzen zen bestela, baina artean, nahiko fuerte zebilen jeneralean, eta gainera, lehen Joxemik esango zuenez, eta orain berak asumituta zeukanez, «ostias, ez zegok txorakerietarako girorik».

Hiriko kaleetan jendeak, bakanka, lanpeturik, uzkurturik, hemendik hara eta handik hona korritzen zuen goiz gogoangarri batez, Luis, pauso oldarkorrez, Udaletxera sartu zen, eta pleno aretoko alfonbra baten barnean biribilkatu zuen bere burua. Askoz geroago, zapata hotsak, eta ate klankak, eta burokrata eztulak arras isildu zirela, hezur-min piska batekiko itzal ezagun bat edifizioaz nagusitu zen, eta txokorik txoko lerratu zen, eta nonbait bilatzen zuena aurkitutakoan,

egindako bideak desegin zituen, eta ate nagusitik aldatu zen, atezainez disfrazatutako estatua bat aho-begi zabalik begira zeukala.

Herrian, antza zenez, Atxarriko Gregorio eta Paulinaz aparte, inortxo ez zen hiru lagunak Ilintin zeudenaz ohartu. Egun batez, hala ere, Luis eta Mehmet autoan zetozela (Mehmet Joxemi ikusten izan zen; «ondo hemen)), esaten zuen Joxemik, «jan-da-edan bizi gaituk»), Ilintira sartzeko bidegurutzean, taju txarreko tipo larru zimel bat ikusi zuten, hantxe, ehiztari jantzian, eskupeta batekin, suekoarena eginez; ez zen bestalde hura ikusiko zuten aldi bakarra izango. Gero berriz, beste batetan, Ilintitik gora buelta bat egitera atera zirela, Murkaitz izeneko etxera iritsi ziren, eta hango etxeko jauna ezagutu.

Anjelek jendeari lotsaz eta beldur piska batez begiratzen zion. Animaliekin –belarri atzeak losindutakoan Laatxa-Laatxa deitzen zion txakur emearekin batez ere– eta landareekin eta naturaren beste edozeinekin hizketatzen zen emeki. «Árbol horrek –esaten zuen, sagarrondo bat seinalatuz– hitz egiten badu, responditu egin behar zaio».

Patricio begi onetik sartu zitzaion: bazen eta, bere joerakoa; Luisek bazekien, Ayacuchoko pataten detaile ahaztuezinaz, baina Mehmetek ere konprobatu zuen, ekaitz gau batetan trumoiekin hizketan ikusi zuelako.

Patriciok ordea ux egin zion Anjel artzaiari. Murkaitzekoa gizon makurtua zen, gogo astunekoa, eta Patriciori gogorapen zahar eta tristeak ekartzen zizkion.

– Esperantza? –esan zuen, behin, Anjelek, Mehmetek hortarakoturik–. Zertarako? Inork ez ziguk ezer emango, eta gu ezer egiteko oso gutxi gaituk, eta hala beharrez itoko gaituk.

–III–

Eguzki difuminatu batek gozatutako negu goiz batetan, Patricio Ilintiren atarian jarri zen eta, ezeri begira, Rosa ikusi zuen.

«Rosa Huayllani Tullumayo 83
Santa Maria, Huayanay Ayacucho
Peru

Rosa, warmichay, maitea.

Goiz da. Ez dago lainorik. Nik, lanak utzi ditut, eta eseri naiz, zure aldamenean.

Jacinto eta Miguel tikiak ere, hemen ditut... Ongi dira? Eta zeu, ongi zara? Nahi nuke gaur, zuekin egon, han. Baina ezin da oraindik. Itzuliko naizelarik, ibiliko gara, eta kontatuko dizuet, klaro.

Euskadin nago. Espainia, aditu duzu, Frantzia, aditu duzu, urrun, itsasoak pasata... Hemen nago, mendian. Mendi txiki batzuk dituzu hemen, kaskoño batzuk, belarrez estaliak, politak... Etxeak, han eta

hemen. Patatak, azak, babarrunak dituzte. Ez dute llamarik ezagutzen: behiak eta ardiak dituzte. Puma Lari beteko herriak dituzte. Eta lantegi luze-luze batzuk, egunez eta gauez kea botatzen dutenak (metalak egiten dituzte, autoetarako). Jendeak basoa eraman du, eta mendian Huiscanzakoa baino meheagoko errekak korritzen dira.

Odola ere korritzen da hemen. «Independentzia», esaten du jendeak. Eta, ez dira independienteak: Espainiatik eta Frantziatik dependitzen dute. Ba, tiro asko dago, hilak, jendearen negarrak. Nire lagun bat preso dago orain.

Beste jende askok ez du politikarekin ezer jakin nahi. Lana, lana, lana ... Gero ardoa edaten dute, pote deitzen duten baso txiki batzurekin. Hogei pote edaten dute, igual, arratsalde batetan. Ardoak egiten du mozkortu. Ni mozkortu naiz, batzutan. Odola joaten da burura eta bueltak ematen ditu, eta ez dakizu nora begiratu. Ez zait gustatzen, ardoa, baina denek hartzen dute. Ta-

bakoa erretzen dute, eta gauza txiki batekin nahasten dute, eta gero parre egiten dute, tonto batek bezala.

Egun batzutan, gero, etxe batetara biltzen dira gizonak, eta jaten dute, eta ez dakit zertaz aritzen diren. Asko jaten dute; horiek gau batetan sartzen dutenarekin, nik aise, astea egingo nuke. Haragia jaten dute, eta arraia, itsas arraia, ona bait da, benetan.

Emakumeak ez dira horrelá ibiltzen. Etxean egoten dira, umeekin, eserita. Beti siletan eseritzen dira.

Batzutan, bai, juntatzen dira, berentzako taberna batzuetan, eta txokolatea edaten dute, ur lodi bat, iluna, ez dakit nondik ateratzen duten.

Emakume politak dira, baina ni ez naiz enamoratu. Begiratzen ditut, begi ñabarrak dituzte gehienek, eta azala oso txuria, eta gizonek ere bai, horrela.

Batzutan, horrenbeste jenderekin, nahastu egiten naiz, eta ez dakit zer egin; edo

bizi-bizi zabiltza, edo hobe duzu etxetik ez atera.

Beharrik bestela lagun onak ditudan. Hitz egingo dizut, horietaz, han. Izakera berezia dute; igual ez dizute inoiz kasurik egiten, eta egun batetan deskubritzen duzu ongi maite zaituztela.

Miguelitori esan, aitak koloretako harritxo bat eramango diola. *Ash allay*! Eta zu, Jacinto, amari gutun hau irakurriko diozuna, ez zaitez joan Sicuani-ra, fideoak eta chuño eta bananak bakarrik jango dituzu eta chapetonak hartuko zaitu, eta ez duzu sosik ekarriko etxera, Jacinto. Hori baino, ziudadera joatea hobe duzu, baina ama ez bakarrik utzi.

Hemengo ziudadeak ikusiko bazenituzte. Ura dute etxeetan, eta elektrizidadea: beti dago argia. Hala ere, triste sentitzen zara, alditan, dena grisa delako, iluna, pena ematen du.

Jendea, kaleetan, gora eta behera dabil, presatuta bezala; arropa eta janaria egoten den kristaletan gelditzen dira piska ba-

tetan, eta gero segitzen dute; batzutan, umore onean ez baldin bazaude, gaizki egoten zara. Batek ez du laguntzen, bestea. Ez dira goxoak, salbu festetan. Festak gauean egiten dituzte, eta kanpotik lagun batzuk etortzen dira eta musika fuerte bat jotzen dute eta batzuek dantza egiten dute eta besteek edaten dute, eta tabakoa erretzen dute, eta goizarte egoten dira, mareatuta.

Jendea ez da normal bizi. «Ze ordu da?», galdetzen dute beti. Mendira joateko desiratzen nago, beti bezala izateko.

Gure etxetik gora, etxe bakar batetan, gizon zahar bat bizi da. Igual hirurogei urte izango ditu; hemengo zahar asko hirurogeitamarretara, larogeitara, larogeitamarretara iristen dira. Gizon hori mendian bezala bizi da, baina bakardadearen gaisotasuna du, horregatik erotu da, eta gizona *hartza*-tik heldu dela esaten du. *Hartzak* gizonaren antza du, animali bat da, bilo askorekin.

Gauza batzuk ikusten dira. Gizon batek zeruan *ikurriña*-ren –hemengo banderaren– koloreak zeramatzan kamioi bat pasatzen ikusi duela esaten du, egunkarietan. Lehengoan beste mutil batek, prentsak zekarren, amari eskatu zion: «ama, labana utziko didazu momentu batez?» Amak utzi eta jo-ta bere buruari sartu zion mutilak, bularretatik.

Larunbatean, lagunek ikusgarri batera eraman ninduten. Aulki estu batzuetan eseri gara, eta han aurrean gizon txiki batzuk hasi dira errepresentazio bat egiten. Nik, segituan, gezurretan ari zirela, antzeman diet, eta parre egin dut, dibertitua, baina jendeak, nirekin parre egiten zuela, iruditu zait.

Gizon askok ez du lanik aurkitzen, hemen. Lantegietatik bota dituzte. Orain kalean huelgak egiten dituzte, eta txakurrek (hemengo sinchisek) jotzen dituzte, eta torturatu, beren koarteletan.

Azkeneko ilargian, jende piloa korrika ikusi nuen. «Zergatik ari dira, zertara

doaz?», galdetu nuen, ez zetorrelako txakurrik atzetik. «Euskararen aide da», erantzun zidan andere batek. Euskara, badakizu, aita Manuk neri erakutsi zidana. Bertan hitz egiten dute. Gutxik hitz egiten du. Jendeak espainolez egitea nahiago du. Baina euskara politago da. Urpi-ri *uso* esaten diote, eta pillpintu-ri *pinpilinpauxa*. Eta gauza bat txuri dela esateko, *churi-churi*, esaten dute.

Gaur, Rosa, goxo nauzu, eta inoiz ez bezala desiratzen dut zurekin egotea. Laster ikusiko zaitut. Musuak, Patricio».

Karta amaituta, begiak batu zituen, zorioneko amets.batetan. Arratsaldez Luis eta Mehmet zienporhoran iritsi zirela, oraindik Ayacuchon zen.

–IV–

Ez zetozen bakarrik ordea. Ziudadetik bueltan, elastiko grisez eta galtza horiez dotore jantzitako beltz bat zetorren, berekin.

Aurreko gauean jaso zuten abisua, Hamisi irribarretia halako egunez eta halako trenez ailegatuko zela. Orain hantxe zen, Ilinti parean, Patriciorekin emozio zabal bat konpartituz besarkada batetan.

Tanzaniarraren begi argia, haren larru iluna, haren usaia ere, maitagarrizko oroitzapenen kutxan zeuzkan Patriciok gordeak. Hamisik ere, anitz apreziatzen zuen Patricioren bihotz sinplea eta berarekiko emankorra.

– Onki zaintzen yaz, yi!

Hamisik ez zuen konprenitzen, Dar-es-Salaam-eko biblioteka nazionalean antzemandako *uskara* gramatika hartan ustez bastante polliki ikasi zuen hizkuntzaz mintzatuz gero, jendeak harriduraz –non ez bait zen dibertimentuz– zertara begiratzen zion.

Orain, hanka-besoak zalutasunez luzatzen zituela, bidaia nekosotik bere baitaratzen zen, eta ardi baten marrakak, eta arratsaren argi murriak eta lur hezearen usainak inpresio estraino bat gogoratu zioten. Beharrik hantxe zen Patricio, xaloki esateko:

– Etorri barrura: gose aurpegia dakarrek.

Hamisik alditxo bat iragan zuen bere onetik kanpo. Gogozki aritzen zen, espetxeranzko lurpeko zulogintzan, baina tarte libreetan, deskantsatu ordez, mendi diskoteka horietako batera joaten hasi zen, eta bestela, astegunetan, dantzan ezagututako neskaren batekin gelditzen zen, xanpañ kopa baten hartzeko eta, egokituz gero, neska hura eratzateko gero. Lan zaila, hura, mendikume haiekin, baina Hamisi akabailaz solastatzen zen:

– Ni xatan naz eta yi’re bai xitan yaz eneki.

Eta nola neskak –doinuaren goxoaz liluraturik, bestalde– *baina* bat ipintzen zuen hemen eta beste *baina* bat han:

– Xoxoa! Nork xineseren du kori solo yik? Mallo-mallo onki erkinen dun...

Harekin behinik-behin txortan aritu zen gozo-gozo.

Beste gau batetan, Hamisi, dantzalekutik bueltan ,arin zetorren, «egun gehio izan tuk nik berotu nescak ni berotu naienak baino» pentsatuz), Patricio ka)ilabera batekin topatu zen etxeko eskaratzean.

Egunsentiak elerraten antzemango zituen. Hamisirentzat batipat gogoangarrizko goizaldea suertatu zen hura, ze Patriciok, ia inoiz egiten ez zuena, bere barruko sentimentu bakoitzarentzat hitzen bat aukeratu zuelako.

– Gureak –esaten zuen, itzal bat begi ninitan han gelditu dira. Eguzkiarekin, mendiarekin, jaiarekin gelditu dira. Guk gauza asko ikusten ditugu, baina han, sinple izan arren, dena zabalago da...

Hamisik ez zeukan etxerako minik. Europa handia zen, eta hango koloreak eta neskak ez ziren brixtez bertan behera uzteko modukoak; bazekien bai Patriciorena desberdina zela.

– Eta haurrak, onki tuk haurrak?

– Gaixoa! Deus ere ez dakit eta. Han ibiliko dira... Neri haurrak gustatzen zaizkit...! Haiekin

aritzen naiz ongi, hain dira partikularrak, hain dira lagunkoiak... Ikusi nahi nituzke, bai, ikusi nahi nituzke, horrexegatik...

Hamisi –buruan ezagutzen ez zituen jende eta lurralde haiek irudikatu nahi– isilik zegoen.

– ...Horrexegatik alditan jotzen nau tristeziak...

Haurretaz aritu ziren –Hamisik ere bazuen, herrian, «haur ñotto bat iror urteko»–, eta gero beren oraingo gauzez eta hurbileko lagunez. Mehmetez, kasu, Hamisik «aski bere kasako tipoa» zela eritzi zuenez, Patriciok «poeta bat» zela esplikatu zion. Joxemi eta Luis, Patriciorentzat, ekintzetan barekin ongi aritu izan arren, «arrotz samarrak» ziren, beren izakeraz edo hizketako doinuaz edo beste horrelako zerbaitez; munduan barrena ibiltzekotan, Luis zeukan horratik beste inor baino nahiago (beharbada soberaxko preziatzen zuen Hamisi bera ere baino nahiago, baina hori gorde zuen bere golkorako), tipo «erraza» zelako. Hamisik ordea, Luis gogortxo antzematen zuen, Joxemi zuelarik orotan maiteena.

– Kori kantik atera artio..! –esan zuen, eta hasperen luze baten amaieran zerumugatik goiti nagusitu zen argi gorri mina begietan isladatu zitzaion.

Beste behin, Hamisiri maitemintzea gertatu zitzaion. Josune zuen izena, eta, ondo ikusita, kalekutzat hori baino askoz gehiago bilakatu zen, inoiz ezagutu zuen neskarik sotilena, misteriotsuena, gartsuena, desiragarriena... Antza Josunek puntu batetaraino bakarrik hartzen zuen aintzakotzat Hamisi, hortik aurrera alanbrespinozko –baina aukera txiki eta polita eskaintzen zuen!– irriparre batez defenditzen zelarik.

Xedera gaiztoan eroria zela ulertzearekin ez zuen Hamisik deusik aurreratu, eta gorputz barrena bizi-bizi baina komunikazioa erabat etenik sentitzen zituen gaupasa ondo batez, karreteran hotzak, lagun begiratu zion adin oneko prostituta batekin elkartu zen, basetxe bateko ohantze batera. Albistea, gero, Ilintiraino heldu zen nolabait, eta Luisek, ez oso zeharka, eta, molde finago batez, Patriciok ere, barrurantza hazi ohi den maitasunaren adarra jo zioten Hamisiri bolada batez.

Déjame vivir
porque no me comprendes que tú y yo
no-no-no
no tenemos ya
más nada que decirnos sólo adios.

Luis bakarrik kexatzen zen irrati kanta horien kalidade bajuaz, aldiz beste inori baino gehiago gustatzen zitzaizkion.

– Hi bai hago –esan zion behin Mehmetek, legunki– txit enamoratua, hire Glori horrekin.

– Enamoratua? Zer da hori? –baina Luisek ez zekien disimulatzen.

– Herorrek jakingo duk –Mehmetek.

– Hik ez duk jakingo, ez –atxiki zuen Luisek, eta kontraatakera pasa:– Hi izango haiz, nire auzoko bat bezalakoa; Glorik esanda zekiat: ezkondu artean ez zian larrurik joko noski, ezkon gauean behintzat bederatzi aldiz jo zioken, astoak; hasi ziren hartan bukatu ziren neskaren plazerrak, gizona larri bajatu huen, orain (ze, hamar urte eramango dituzte?) hiru hilabetetan behin aritzen omen zaiok, eta andreak, jo eta jo bes-

tea, andreak artean «bihar esnea erosi behar dinat, sagarrak, ogia...» aritzen omen duk.

– Eta Glorik –esan zuen Hamisik–, atso korri, ze elerranen dik, hiren?

– Ez horrelakorik...! –broma estilo hartan bere terrenoan sentitzen zen Luis.

– Hobe duk urrin egon eta aldikal xoaitan segi bai! –umorez Hamisik.

– Hik nahi duk, eta ezin duk, eta hori okerrago duk.

– Nontik erkitan duk kori? –Hamisi samurtu zen serio– Nor yaz yi, gaiza kori erraitako? Ni ez nuk ebiltan, ez korreki, ez eureki ere!

Hartan, Luisek «en fin!» esan nahi zezakeen keinu bat eginik esne katiluan gorde zuen bere burua.

Biharramonean hori baino txarragoko zerbaitekin itzuli zen Mehmet kartzelarako bisitalditik: ostiralarekin Joxemi beste presondegi batera trasladatuko zuten.

Lagunen goitik-beherakoa! Tunela amaitzeko –bezperan kalkulatzen ihardunda– hogei bat egun faltako zutela jotzen zutelarik, lanari utzi behar...! Bai aldebat utzi ere, tunpateko hartaz

ez zerurako ez lurrerako gelditu bait ziren. Mehmet ohean sartu zen, eta astebetean bertso bakar bat ere ez zitzaion gogoratu. Patricio harat-honat zebilen, gauzak leku batetik kendu eta beste batetan ipiniz, baina azkenean azak eta letxugak ere ohartu ziren, tipo hura ez zela garai batetakoa. Hamisi egunez hasi zen ateratzen, eta deskuidoan neskatilaren batekin topatzen bazen, irribarre akitu baten itzala eskaintzen zion. Luisek Trintxerperako hiru joan-etorri egin zituen, laugarrenean berriz joan bakarrik egin zuen, eta Hamisik gailego karek zer pentsatzen zuen, protestatu zuen.

Mikelek aurkitu zuenean Luis ardo putzu bat zen taberna batetan.

– Luis, zer habil hemen? –galdetu zion.

– Hire bila –norekin ari zen ezagutu gabe–. Ameriketara joan beharra zeukeagu.

– Hi –esan zion Mikelek, berak bakarrik zekien goxotasunez:– goazemak etxera.

– Etxera? Ez behintzat! Ameriketara...

Mikel –bazeraman bai Luisek, zerenbaiteko karga– hatsanturik heldu zen lagunaren etxeraino. Ohean utzi zuelarik, hari ezer esaten aritzea

alferrikako zela eta, bertan sobre bat utzirik desagertu zen...

Hurrengo goizean, Glorik –hitz gutxiz, zimiko zenbaitez– dutxatu zedila komentzitu zuen. Buruak ez zion hala ere hagitz ongi funtzionatzen, mesanotxean sobre hura deskubritu zuenean.

Joxemiren eskutitz bat zen, presondegi berritik nondipait aterea.

> «Aupa!
>
> »Zer moduz, koadrila? Suelto bazabiltzate behintzat eta kontent. Ni, goseak, orain, huelgan gatxek eta, baina yogurra baino sanoagoa, hau ona duk eta, osasunerako. Itsusia duk hau, baina ez nauk horma hauei begira egotekoa.
>
> »Lanarekin segi zuek, ez zaitezten aspertu, eta beste gauza bat: esaiozue Itsasori ni hara joateko eskakizuna egin beharra daukala. Nobioak garela gogoratzen ez bada–, eta bera gaizki dagoela, eta nire beharra daukala, eta, bueno, hori, bale?
>
> »Egongo gaituk,
>
> Joxemi».

Ilinti berriz ere martxan...

Gau hartakoxe umore ona profitatuz (arratsaldean Patriciok aitzurra gogotik erabili zuen, kakalardoa baino entretenituagoa, eta Hamisi kanta marmarka aritu zen, betargi, eta Luisek sukalde bazterrak inork inoiz –salbu eta, menturaz, Glorik, ezkondu eta geroxeagoko goiz ero batetan– ikusi ez zion pollikitasunez txukundu zituen), Mehmetek proposatu zuen ze, negozioak bide xuxena harturik zegoela ikusirik, ea hurrengo larunbatarekin iparraldera zergatik ez joan, bera han izan zelarik adiskide batek noiznahi joateko gonbitea egin bait zion, eta orain gainera bestatan zeudela, han edo inguruan berak non ez bait zekien.

Mendian gora, mendian behera, larunbat eguerdiz, Bokartenian ziren, Txominen etxean.

Txomin mutil puska ederra zen, mahaian solas egiteko laguna, eta Mari haren emazteak, besteen hizketan eleño batzuk tartekatzen zituen eta lan egiten zuen mando baten gisa.

Bazkari izugarria bururatu zuten. Txomin mintzatzen zen gehienik, nahiz ez hoberenik

–eta klixkaka begiak, horrek pentsatzen laguntzen ziola esaten bait zuen.

– Me... Mehmet hau baita mutil moxkor arraila! Uste duzue, ni etxerat heldu nintzelarik, tipi eta tapa, go... goxoan, gau be... bete-betean, ateka pasa eta non ikusten dudan mairu bildurgarri bat, hor lurrean etzanik, ez bait zen gisa, gaua baino beltzagoa ere... Z... z... zihaur –Hamisiri– baino beltzagoa ere egiten bait zuen, aldebat horditurik gizona, eta nik enetako erran, hau, edo hilik utzi dik norbaitek hemen, edo espakatia duk... Ha... ha.... hanka muturrez taka egin nion eta gaixoak ahapetik zerbait sarramuskatu zautan... 0... o.... orduan espakatia duk, erran nuen, eta errestaka ekarri nuen etxeraino, lastotan lokartu zedin. Do... do... dohakabea! Ez bait zinuen hemengo usantza ezagutzen –eta dzangarena egiten zuen Txominek.

– Martinia, anitx ona duk! –esan zuen Hamisik, Pariserako abioian estraineko aldiz hartarik probatua.

– De... denak dituk onak! Ba... bata besteare-kin, txarrak!

– Bereizten zailak, gero! –esan zuen Luisek, zigarro puru batez armatua.

– Berexten ahal bada –esan zuen Hamisik, bizkor– onki, bestela, orobat!

– Nahi’zue xorta’at? –Marik botila bat zerabilen buru-kopen gainetik.

Nahi zuten ba. Gero beste bat. Eta gero kalera, baizik eta Ezpeletan feria zenez giro izanen zen. Mariri bi masail gorrixtatan muxu bana ematen azkena, Mehmet gelditu zen, eta kurdoak halako samurtasunez begiratzen zuen, eta Marik ez zuen bista altxatzeko adorerik izan, ze begiradak salatuko zuen, eta senarra kanpotik beha zukeen. Gizonezkoak abiatu zirelarik, aulki batetan jarri zen, eta, mendira so, ogi purruska batzuk hatz-mamitan jolasgai, gogoratu zen... Egun hartan, Txomin lanera joana zen, eta arditegiko ganbaran Mehmet bakarrik zen, eta hura deusetaz ohartu gabe, berak kargatu zuen eta etxeraino eraman, eta maiñu bero bat prestatu zion, eta sarrerazi uretan, eta xaboia eman eta garbitu eta txukatu eta gero ohera lagundu... Mehmet lokartua, hari begira gelditu bait zen, haren espresioa hain bait zitzaion atsegina, eta

kolore beltxa, eta zenbait egunetako bixarra, eta ardo koloreko ezpain lodi horiek... Joan bait zitzaion eta hurbildu bisaia eta ezpainez ukitu gizonaren ezpainak eta instant batez horretan gelditu, haren larruaren usain kilikagarria eta ezpain gogor haien sentsibilitatea betikoz bereganatu artean... Xutitu zen hala ere, eta sukaldea xahutu, eta bere burua pittin bat apaindu, sarri etxeratzeko bait ziren Kattalin eta Felixi, eta, bon, hasperen bat askatu zuen, esperantza ttipi batekin.

Bost gizonezkoak tabernarik taberna ibili ziren, irri-kontalari, berde koloreko edari majikoak edanez.

Hegoalderako itzulia –Txomin hanka bakarreko iheslari bizkaitar batekin utzi zuten, esan beharrekoak geroz eta esan ezinagoan– ez zen izan ez-usterik gabea. Mugazainak aise burlatu zituzten, eta peugeot mutur-herdoildu batez egin zuten kamiorik gehiena...

Alta bada, nonbait, atentaturen bat gertatu berri zen –salatari bat hil zutena gero jakingo zuten–, eta Hernani baino lehentxeago, errebuelta txar baten ondotik, kontrol zikin batekin topa-

tu ziren; Luisek azeleratu zuen eta, besteak bezala gorputza kikilduz, zis-zas lurrean zeuden burdinezko zizpitak ebitatu zituen, eta eskuin-ezkerretik eta tanketa gainetik jaurtikitako bala guztietatik, bakar batek ere ez zuen autoan zihoaztenen larrurik zulatu.

Segituan kotxe hura utzi eta beste bat galdegin zioten atso ikarati bati aldi baterako. Horrexen barruan konturatu ziren, Mehmet falta zutela. «Non arraio sartu zaigu kurdoa!» Ezin bilatzen hasi behintzat, eta abio batetan joan eta Ilintira ailegatu ziren.

Berandu gabe jeitsi ziren atzera, Patricio eta Luis, atsoaren automobila utzi eta Mehmeten arrastoa segitzera noski. Herriko gazte ezagun bati galdetu zioten:

– Aizak: kurdoa ikusi al duk hemendik?

– Ez –erantzun zuen harek–: nik ez dut kurdorik ikusi –eta, ondoko lagunari:– Hik ikusi al duk, kurdorik, hortik?

Majo zegoen laguna.

– Aspaldian ez diat kurdorik ikusi, neronek ere.

Ez zen kuxidadea. lluntzearekin, etsita, gora jo zuten: oinez halabeharrean, behatz eginez arima gupidatsuren batek puska batez lagunduko ote zituen. Lehenbiziko kotxean, figura ezagun bat. – Mehmet!

– Ama!

– Puñeta!

Txatarra barruan bihotzak alai.

– Non sartu hintzen ordea?

– Komunera joan beharra neukan, demonio! – Baia! Eta kotxea?

Mehmetek parre egin zuen. – Enemigo bati kendu zioat.

Afaritan, fideo zoparen ondoren, Luisek hitz berri batzuk munduratu zituen.

– Hola ibiltzen haizenean konturatzen haiz, hau ni-diosek ez duela geldierazten.

– Herria zapaltzeagatik pagatutako mertzenario horiek ere ari dira, bestaldetik, geroz eta gehio

– esan zuen Patriciok, patata puska bat hortzetan zerabilela, ohizkoa ez zeukan ebakera zorrotzez.

– Bai –esan zuen Luisek-; baina guk, aurki, Joxemi aterako diagu.

–V–

Ekaina... Mendietatik gora, azkeneko hotzak lurrintzen dira... Nasai hazitako belarrek, burua makurtuz, segatzea galdetzen dute... Haize legun batek atseginez iñarrosten ditu Ilinti bazterrak...

Gure lagunak ez ziren kieto egoten. Goiz eta arratsaldez, sator lanean aritzen ziren, binaka, batek pikotxa zerabilelarik eta bestea lur ateraka. Plastikozko bi balde'txiki erabiltzen zituzten horretarako, handik errestan atera eta lokalean elkarren gainean pilatzen ziren zaku handi batzutan husten zituztenak. Gauez irtendakoan, lur kiratsa zerien, eta zerbeza edaten zuten, gogotik.

Zorionak nonbait zibilak beren bidetik aienatzen zituelarik, eta lehen bide bazterrean aurkitu ohi zuten aire susmagarrizko tipo txiki ile gomatsu hura ere beste norabait bizitzera joango zelarik edo, gora eta behera eroso ibiltzen ziren.

Paisajearekin eta jendearen izakerarekin emeki-emeki laketzen ziren eta, ohartu gabe,

nork bere gauza propioak piska bat utziagotu zituen, Joxemi lehenbailehen libre ikustekoz.

Anartean, Joxemik eskatu bezala, Itsasorekin hitz eginda zeuden, eta neskak, beste gizon batekin bazebilen ere –kasta txarrekoa, hura; Mehmetek ezagutu zuen, eta haren begiradak morroiak makilka erabiltzen zituen bere herriko jauntzar batena gogoratu zion–, zerbait egingo zuela, bai, deliberatu zuen. Harezkero abizen zailegiko preso haren andregai erdi-zoroaren eskaera hura, mutila «ahalik eta gertueneko presondegi batera» ekarri zezaten, bulego batetik beste batera ibiliko zen, «pazienteak –informe baten arabera– une honetan bere euskarri bakarra duen preso horren hala-beharrezko premia duelarik, sendatzekotan». Itsaso, inoiz, Joxemiz gogoratzen zen. «Ez zegon oso sano burutik –esaten zuen, bere kautako–, baina, ateraez gero...» Ez bait zen, haien adiskidantza, denboraren pasatzeaz joan eta joaten diren horietarikoa.

Bi astetan zehar, txintxotasuna nagusi izan zen Ilintiren mende-lurretan. Gero, ostegun batez, Mehmetek harrigarrizko gaupasa egin

zuen, sukaldearen alde batetik bestera urrats luzeak emanez, bertsoak esaten, jira-bira begiak. «Hiri kaskoa idortu zaik», esango zion Hamisik hurrengo goizean.

Hamisiri bakarrik kontatu zion Patriciok gau hartan bertan izaniko amets arraroa. Rosarekin oheratu zen, eta hotza antzeman zuen emakumea. Berotu nahirik alua ukitu zion eskuarekin, han zerbait gogorra zeukala somatuz. Rosak ez zuen apenas erreakzionatzen, eta gero aitortu zion: «Lehenbiziko gaua da eta, ez dut gogorik». Orduan Patriciok utzi egin zuen, baina galdetu zion: «Zer duzu, ordea, hor?», alu barruan zeukan gauza gogor harengatik. «Estufa txiki bat da, hotza kentzeko», esan zion Rosak. Gero, emaztearengana itzuliz kristau ona zela erakutsi zuelako, serora batzuk etorri zitzaizkion koka eta chacta ematera. Berak serorak bidali zituen baina koka eta chactarekin festa batera joan zen, lagun zaharrekin egoteko.

Kasualidadeagatik, haizeagatik (haize kontua zela, uste zuen Patriciok) edo haatik, ostiralaren arratsaldean Hamisi kalean txarki begiratu zion tipo batekin kalapita bat izan zuelako su eginda

itzuli zen etxera. «*Oro mzungu, oro mkristo*!» (*Europarra, kristaua*), esaten zuen, suminetan. Kalapita xoxoa izan zen, baina Hamisiri tipo zital hari matraileko bat ez emana damu zitzaion.

Beharrik larunbatarekin Joxemi ekarri zuten...

Ez zuten, baina, berak uste zuen galeriara sartu. Pare bat egunez Joxemik txinpartak atera zituen, egoera berri hari nola kopeta eman, asmaketan.

Artean Itsaso joan zitzaion bisita egitera. Esperantza gutxiz joan zen, ustez eta Joxemik eskutartean zerabilen zerbaitetarako beharko zuen, baina bere benetako beharrik ez zeukan. Elkarrizketaren ondoren oso bestelako inpresioa zeraman, eta bazkalaurrean –inoiz egiten ez zuena– lagunekin pote batzuk hartzera irten zen karrikara.

Joxemi ere gelditu zen, sentimentu polit bat dantzan ari zitzaiola. Hitz gutxi egin zuten, Itsaso eta biek, baina dena naturaltasun eta gozotasun batetan irten zitzaien, eta orain bazekien, neska berarekin zuela. Ateratakoan... Joxemik espero zuen, elkarrekin ibili ahalko zirela, eta beharbada... beharbada orain Itsasok ere nahiko

zuen... ume bat izan... berak nahi zuen gisa, hitzetan konkretizatzen zaila zen desio batetan...

Ilintin jarriko zen, eta altxamendurako planak bertan mamituko zituen. Mehmet, Patricio, Luis, Hamisi, beraren alde dena emandako adiskide bereiztezinak, inoiz eta beti... Bizia, eta independentzia, eta internazionalismoa burubide zituztela, egundainokoak egingo zituzten...

Mehmetek egin zion hurrengo bisitan, lurrazpiko lana utzi, eta furgoneta bat alkilatu beharko zutela, esan zion, kartzelako zuzendaritzak preso batzuek handik mueble zahar batzuk ateratzeko egin zuten proposamena ontzat hartu zuelako.

San Juanak ziren. Joxemik zer esango zai, festetara jeitsi ziren, Mehmet eta Patricio, Hamisi eta Luis.

– Patricio, dotore jantziko al haiz!

Patricio –menditarren filosofiaren arabera– ez zen arropaz batere arduratzen. Harentzat janztea aktibidade sinple bat zen, eskueran jartzen zitzaion lehenbiziko elastikoa hartu eta harexekin aterako zen: Luisek arpa jotzen zion alderdi horretatik.

Automobilean herriratu ziren eta bat, bi, hiru, lekutu arterainoko katxarroak elkarrekin hartu zituzten. Geroxeago Hamisi haizatu zitzaien.

– Non da, Hami? –galdetu zuen Mehmetek.

Inork ez zuen erantzun, baina hirurek kolore ñabarretako txoriñoak irudikatu zituzten.

Ez zen halakorik oraingoan. Musika hari. batek lotu zuen Hamisi pilotalekuraino, non gazte jende pilo batek soinak erritmorik gabe astintzen zituen.

Thatcher andrea
putakumea!

Dantza indarrez egiten zuten, denak denen kontra. Tarteka-tarteka, gau ibileretan ezagututako mendi koadrila batekin juntatzen zen Hamisi, eta zerbeza edatera joaten ziren plaza taberna batera. Neska batek xoratu zuen, eta haren ondoan suertatu zen okasio batetan, «basakatu begiak tun» esan zion, komentzitua gainera, baina neska bere kasa zebileñ, eta Hamisik «higantik iñar bat nahi niken neuretako gorde» irentsi beharrean gertatu zen ondikoz. Handik aurre-

ra, sinisgaitzeko martxa hartu zuten koadrilan, nondiknahi edanez, nornahirekin sartuz, edonora, jo-ta-fuego.

Beste hirurak ez zirén elkarrengandik sobera apartatu. Berandu gabe Glori etorri zen, bere anaia eta honen koadrilako ziren kazadora-beltz batzurekin, arrasatzeko asmoa zekartenak. Konpetentzia handia topatu zuten eta ez zuten arras arrasatu, baina ahaleginak egin zituzten, eta dantzarik biolentoenak egin zituzten, eta zazpi edalontzi hautsi zituzten, eta mutilekin lagundutako neska lotsakorrak parez pare begiratzen zituzten. Halere hi-haiz-ta-ni-nauk pare bat baizik ez zuten izan, eta odolik ixuri gabe egin zuten hanka.

Pestan sartuz gero gizonezkoek emakumezkoekin enkontru egiteko ohitura dutenez, Patriciori ere grazia handiko neska pottolo samar bat suertatu zitzaion begiko, hain gustagarri, ze harengandik zintzilikatua iragan zuen gauaren erdia, hitzik esan gabe, neska ohartzen ez zitzaiolarik, harik eta bien koadrilak berezi ziren arte, non eta Patricioren bihotzari, pisu batez libraturik, taupadak baretu zitzaizkion. Mehmet

hobekixeago enroilatu zen, ze aldiño batez solasean aritutako neska ile hori batek agur esateko momentuan «inoiz etorriko al haiz?» galdetu zion, eta zirraraldi batek korritu zuen kurdoaren bizkar hezurra, eta musu eman zion, eta poema ezin ederrago bat gogoratu zitzaion.

Gero mobida arraro batzuk gertatu ziren, manifestazio bat, norbaitek plazan piperpoto bati su eman ziola eta txakurrak bazetoztela zurrumurruak... Gaua amatatu baino lehen, zerbezak eta txanpañak baratzuri zopari txanda utzi zioten eta lagun mordoskak soziedadeetan gainezkatzen ziren, eta gizonak burutik nahasi zeuden, baina pozik hala ere, zeren kanpoan eguna argitu zen, eta haiek benetako gaupasa bat bururatu zuten.

Aizkora apustu baten espektazioan igaro zuten goiza, eta hura eta gero, ostatu batetan salda hartzen ari zirela, Hamisi agertu zen, ondo lo eginda mutila, non eta Lesakan, Aran deitzen zuten hango basuso baten kafi goxoan. Ostatuan, gizon zahar txapel txiki bat jarduten zen kopetilun; haren ateleka!

– Eman egin behar... Eman! –esaten zuen, begiek zuloetatik aldegiten ziotela–. Haiek eman ziguten, guri, lehenago! Gu ixilik egon! Entendimentua lotuta... Ez betirako! Defenditu egin behar...! Harrika, edo! Bueltan, zer...? Han zeudek, ostatuan...! Hankajokoan, besteak...! Gero, negoziatu...! Negoziatu, bai: hau, eta hura, tori, faborez, mesedez... Taka!... Zeren hau, zeren hura, entenditzen duzue... Taka!... Badakizue, guk ez dugu nahi, pakea, kristo... Jo!... Eh?... Jo!... Amigo!... Zer pasatzen da hemen...?

Gero ez zen hitz horietatik ateratzen, eta Mehmet lokartzen ari zen, eta noski gora jotzeko garaia izango zuten, hartaz Luisek alkilatu zuen eta muebleak garraiatzeko espezial ematen zuen furgonetan bostak –Glori ere bazihoan haiekin eta– igo ziren Ilintiraino.

Azken prestakizunetan aritzen ziren. Mehmeten azkeneko bisitan, Joxemik egun bat seinalatu zuen ihesketarako: ostirala, ustez eta egun hartan txakurrak zerbait laxatzen bait ziren.

Paper zikin batzuk beharko zituen Joxemik mundu herrian trankil ibiltzekotan, halaber Ilinti baino seguruagoko gordeleku bat. Bi gauza ho-

rietarako Patricio eta Hamisi Mikelekin hizketatu ziren, xehetasun guztiez arduratuko zena.

Mikel mila gauzatan aritzen zen tipo argal eta zainbizi bat zen, zigarriloak elegantziaz erabiltzen zituena eta batzutan kaskoaren bueltan ideia moduko satelite bat zebilkiola inpresioa ematen zuena. Poesiak idazten zituen, eta ale batzuk Mehmeti utzi zizkion, baina kurdoak ez zuen besteren bertsoekin gusto handirik hartzen eta geroko baterako lagatu zituen.

Ostegun gauean Joxemik, zeldako kamantzean kixkur eginik, pentsatu zuen: «Gaur larrutan, besterik ez nuke nahi egin, edozein gustoko neskagaz». Gero, lo egin zuena, ez zuen txarra egin.

Goizean berriz, gosaritako bizkotxoa zerabilen eskua dardar hasi zitzaion, eta ez zuen bukatu bere kafesnea.

Goizerdian iritsi ziren aroztegikoak, mueble zaharrak eramatearren. Patioan sartu zuten furgoneta, eta preso batek lagunduak, mahai handi bat, apal batzuk eta armairu tipi bat kargatu zuten. Funtzionario despistatu baten aholkuak entzun behar izan zituzten, mueble berriak non

eta nola ezartzeari buruz. Gero abiatu ziren, sarreraraino, poliki-poliki. Sarrerako goardia batek geldiarazi zituen, eta irekiarazi, gibeleko atea.

– ¿Qué llevan ahí? –armairu tipiagatik.

– Nada, pues –erantzun zuen Patriciok.

– A ver.

– Zerra ezak borta! –oihu egin zuen, bestaldetik, Hamisik.

Patriciok barrura salto egin, Luisek furgoneta eta Mehmetek kotxea arrankatu, Hamisik txakurrari disparatu eta beste txakur batek salto egiten zuen Joxemiri bala bat petxo erditik sartzea, une bat izan zen...

– Me kaguen dios! –bota zuen Joxemik lurreratzen zelarik.

* * *

Ilintiko sukaldean lau lagunak triste etsita daude. Negar egin dute, eta elkarri begiratzen diotenean, mina sentitzen dute. Ixilik daude, geldirik, ez dakite zeren esperoan.

Hamisik zigarrilo bat piztu du eta poxpoloa, axolagabeki, ixkin batera du jaurtiki. Han meta-

turiko zarbak ez.du behar askorik, suak har dezan... Hamisi bera altxatu da, hura itzaltzeko, baina Mehmetek, orduan, geldierazi du... Elkarri fijo begiratu diote...

Kanpotik ikusi zuten, xoratuak, Ilinti nola ilauntzen zen... Eta suak beren aurpegietan kiskaltzeari utzi zionean, lauak besarkada batetan elkartu ziren, eta berezi zirenean, ez ziren berriro elkartu, eta orraziak markatzen dituen lau puntu garrantzitsuenetatik abiatu ziren.